

Arrasate

P R E S S

2000.eko
Irailaren 29a
510. zenb.

Goitb



Goienera iristeko prest

IKUSPEGIA: KARMELE PEREZ • AUZOZ AUZO: GARAGARTZAKO JAIAK
KIROLAK: MOTOKROS TXAPELKETA • KULTURA: JULIAN GAYARRE TXAPELKETA

Etxeko konponketak

Aroztegia

Armairuak, hormako armairuak, atek, oholtzak, leihoak etab.



Garagarza auzoa, 5-2.
(Bixiena Baserria) • ARRASATE
Tel.: 943 77 02 43
Mugikorra: 608 77 40 83

Markoalde, 5-7 • BERGARA
Tel.: 943 76 08 10

Igeltzaritza



Iztue Irurzun

Igeltzaritza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

Leihoak



ARGI PLASTIK

PVC, aluminio termiko
eta poliuretanozko
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola, 1- Pab.
Tel./Faxa.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

Elektrizitatea

ARANZABAL



KOOP. E.

Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak

Zerkaosteta, 15

Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Igeltsoak - Apaintzea

Pako eskaiolak s.l.

Markulete, 14

Tel.: 943 77 08 21

Margoak

APAIN

MARGO ETA APAINKETA

Matiena, 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17



ARRASATE

Elektrizitatea

Instalakuntza eta muntatze elektrikoak

24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77

Gipuzkoa etor., 37 • Tel.: 943 79 65 93

Iturgintza

Aretxabaleta

Durana, 16 behea (Aretxabaleta)

Tel.: 943 79 17 53

AURI

Loramendi 7, 2 behea
Tel.: 943 77 08 88

**Iturgintza • Bainuak
Gasa • Berogailuak**



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea, 39 behea • Tel.: 943 77 01 85

Tapizeriak

Konrado

Aulkiak, besaulkiak, sofak,...

Eskatu aurrekontua.

Nafarroa etorbidea, 23 MI 11

Tel.: 607 45 72 51 • Arrasate

Giltzak



- Zerrailagintza • Giltzen kopiak • Zapata eta aterkin konponketa
- Artazi, laban eta abarren salmenta eta zorrozketa
- Larruzko gauzak
- Pantografo bidezko grabaketa

Eroski merkataritza zentroa, 1

Tel./Fax: 943 79 76 03

Txorrota

Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea

Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

Gida honetan azaldu nahi baduzu,
deitu 943 71 23 91 telefonora

Pragako udazkena

Munduko 20 mila banku-gizon, ekonomista eta inbertitzaile bildu dira astean Pragan. Munduko Bankuak eta Nazioarteko Moneta Fondoak bere urteko bilera han antolatu du aurten. Han bildu dira, ustez, haien proposamena bultzatzen jarraitzeko (ekonomia globalaren liberalizazioa) hori baita haien ustez munduko arazoak konpontzeko bidea. Horren aurka sortu da, baina, Praga 2000 erresistentzia globalaren mugimendua. Horien ustez, globalizazio eredu hori eta MB eta NMFren politikak dira munduko arazoaren arrazoi nagusiak: ingurumenaren hondamena larriagotzen dute eta munduko biztanle gehienek desberdintasun ekonomiko eta sozialak areagotzen dituzte. Munduaren etorkizuna ikusita, bilera hori zerbait egiteko erronkatzat hartu dute eta, Seattle-etik Pragarako bidean, erresistentzia mugimen-



Karmele Perez

Politika neoliberal horiek ez dute mundua berdindu, ez dituzte arazoak konpondu

dua martxan jarri dute. Entzuten zen, gazte asko joango zela, istiluak egongo zirela... Iskanbila, ez da nolanhikoa izan. Hemendik joandako jendeari han gerta zitekeenaren aurrean nola babestu, gasen edo erreduren aurrean nola jokatu jakinarazi zitzaion gida baten bidez. Ez zen gutxiagorako protesta egitera joan diren bi pertsonako polizia bat dagoela egia bada. Gizartearen erantzunak indartsua izan nahi zuen. Milaka pertsonak egin nahi izan dio aurre produktibismoa, lehiakortasuna eta kontsumo indibidualista bultzatzen dituen politikari. Ez diote etorkizunik ikusten garapenkeria itsu eta ustiatzaile horri, proiektu megalomanoen bidez batzuen interesei erantzunaz beste batzuen pobretzea, desplazamendua eta desagerpena eragiten duen politikari, alegia. Iritzi horren aurka,

MBko lehendakariari "etsigarria iruditzen zaio justizia sozialaren alde horrelako mobilizazioa egotea beraiek egiten dutena hori bera denean", justizia soziala, alegia!! Baina, hara, lehen eguneko ondorioetan zer agertu den: erakunde horiek kontziente omen dira orain arte bultzatutako politika neoliberal horiek ez dutela mundua berdindu, ez dituzte arazoak konpondu... Eta orain zer? Hasiko al dira munduko aniztasun kultural, biologiko, ekonomiko eta politikoa babesten? Indartuko al dituzte tokian tokiko ekonomia eta merkataritza sustatzeko erabaki-guneak? Ez dakit ezkortasuna den edo errerealismoa, baina ez dut uste haien ibilbidean horrelako mugimendurik ikusiko dugunik. Izan ere, boterea ondasun preziatua baita, zer esanik ez estatuen mugak gaintzen dituenean. Ez dugu beste aukerarik izango: guk ere globalizazioaz hitz egiten jarraitu beharko dugu aurrerantzean. Baina, ez kapitalaren globalizazioaz, ez horixe. Horien aurrean, elkartasunaren eta erresistentziaren globalizazioa izan beharko dugu mintzagai eta ekintzagai. Ala ez? ■

"Gaixoen egunez eguneko jarraipena egitea eskatzen dugu. Alzheimer gaitzak jotako pertsona batek urtean 3 milioi pezetako gastua dakar".

Edurne Etxabe

AURKIBIDEA

60.255.870
pezetako aurrekontua dauka Arrasateko Udalak, etxetzeko laguntza zerbitzuan.

1991n hasi zen zerbitzu hau eta orduan 55.810 pezeta gastatu zituen udalak. Hurrengo urtean %8ko defizita izan zuen. Aurten, berriz, defizit hori %31,9koa da; izan ere, etxetzeko laguntza eskatuta duten familien kopuruak gora egin du; gaur egun, 207 familiek jasotzen dute zerbitzua.

- Ikuspegia **3**
- Pragako udazkena
- Irakurlela idazle **4**
- Inkesta **5**
- Euren ikuspuntutik **6**
- Hau da! Kmk/00
- Begi Kolpez **7**
- Asteko hitzorduak **8/9**
- Astearren errepassoa **10**
- Orain eta hemen **11/12**
- Txutxumutxuak **14/16**
- Asteko gaia **17/19**
- Bailerako aurpegiak eta kontuak barra-barra
- Aurrez aurre **20/21**
- Edurne Etxabe
- Auzoz auzo **23**
- Garagartzako kontuak ezagutzen
- Kirolak jokoan **24/25**
- Kulturaren txokoa **26/28**
- Ikusi eta entzun **30/31**
- Azoka plaza **32/33**
- Foto zaharra **34**

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Marijo Deogracias. **Kazetariak:** Ubane Madera eta Leire Kortabarria. **Publikitateak:** Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arriola. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Sergio Azkarate. **Administratzailea:** Agurtzeme Gaintzarain, Ane Berzibar. (Tel.: 943 71 23 90) **Disolua:** Maddi Trubuelo. **Asteburuetako berriemak:** Lorea Agiriano **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Karmele Perez, Nekane San Migel, Iker Ezpeleta eta Udaleko Gazteria Saila. **Banaketa arduraduna:** Naiara Odiola-AED. (Tel.: 943 77 12 28).
© ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Franko konertzatua.** **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.
Azala: Maddi Trubuelo.

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Igoalatorioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Deliak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
Arrasate
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramaio 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

Udaltzaingoa

Onati 943 78 04 11
Bergara 943 77 91 06
Arrasate 943 79 14 39
Aretxabaleta 943 79 10 52
Eskoriatza 943 71 44 07

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) ... 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) ... 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
..... 943 79 78 44
..... 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentruak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

Irratia

Arrasate Irratia 943 71 17 31

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Ostirala, 29

• Amezua, Santa Marina

Larunbata, 30

• Zabala, Zarugalde

Igandea, 1

• Ruiz, Maalako Errabala

Astehena, 2

• Morales, San Andres

Astearte, 3

• Azkoaga, Ferrerías

Asteazkena, 4

• Azkoaga, Iturriotz

Osteguna, 5

• Korkuera, Musakola

Gutunen araudia

Arrasate Pressen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira, nahita ez:

- Egilearen izenaz argitaratuko ditugu. Egilea talde bat denean, edo talde baten ordezkaria, talde izena onartuko da.
- Gehienez jota, 30 lerroko gutunak onartuko dira. Hor-tik gorakoa balitz, laburtzeko eskubidea izango du erredakzioak. Aurrez egilearekin harremanetan jartzen saiatuko gara.
- Anonimoak eta gaitzizen edo inisialez datozenak ez dira argitaratuko.
- Ez da lekurik gordeko. Erredakziora ailegatutako ordeen kaleratuko dira gutun guztiak.
- Gutun iraingaririk ez da argitaratuko.
- Gutuna ekarri edo bidaltzen duenak berarekin harremanetan jartzeko modua adierazi beharko du, egilea bera dela egiaztatzeko. Telefono zenbakia nahikoa da horretarako.

Gidalari berria

Idoia Pozo, 26 urteko mon-dragoetarra, arduratuko da ARKOn Gida Komertziala egiteaz.

Idoia lehen ere ibili da ARKOn lanean, publizitate sailean.

2001eko Gida komertzialaren 11.500 ale banatuko dira urtarrilean etxetan, dendetan, enpresetan eta beste hainbat lekutan.

Idoia Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Gatzagan hasiko du lana eta urriaren erdialdean Arrasaten izan-



go duzue, beste lankide batekin batera.

943 71 23 91 zenbakian hartuko zaituzte.

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

M
MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 943 71 24 25

ML
ILE APAINDEGIA
Alfonso X jakintsua, 1 behe (Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

Merezi dute Garagartzako buzkan- tzek kalitatezko Eusko Labela?

Astebukaera honetan, San Migel jaiak direla eta, buzkantz jana egingo da Garagartzan.



Jose Mari Urrutia
(78 urte)
Erretiratua

Bai, Garagartzan parega-
beko buzkantzak egiten ditu-
gu; munduan ez dira inon
horrelakorik egiten.



Paula Nafarrate
(37 urte)
Etxekoandrea

Baietz uste dut, nik neuk
ez ditut oso gogoko, baina
hemen, oso goxoak direla esa-
ten dute.




Leandra Otxoa
(76 urte)
Etxekoandrea

Bai, hemen estimazio han-
diz jaten dira; Arrasatetik ere
oraindik jende ugari etortzen
da probatzera.



Andy Bosniac
(10 urte)
Ikaslea

Bai, pikante pixka bat ere
badute eta niri asko gustatzen
zaizkit.



Gregorio Revuelta
(71 urte)
Erretiratua

Ez dakit merezi duten edo
ez, nik oraingoak ez ditut pro-
batu. Lehengoak bai, haiek
kalitatezkoak ziren.



Modesto Lopez de Granero
(54 urte)
Langilea

Ez, Garagartzako buzkan-
tzak pilaka egiten dira eta onak
izan arren, kalitatea galtzen
dute.



Anton Okina
(57 urte)
Langilea

Baiezkoan nago, hemengo
buzkantzak bakarrik dira, one-
nak.



Juanita Lasa
(51 urte)
Etxekoandrea

Bai, nik etxean egiten ditut.
Konfiantzakoak eta oso goxo-
ak dira; beraz, guztiz merezia
dute labela.

GANBARA

- Enmarkazioak
- Estiloko markoak
- Laminak
- Arte lanak (margo lanak)

Arte
ederretako
materialean
%25-30eko
deskontua

Erguin, 2 behea • Tel.: 943 77 12 37

BASATI
TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
TLF. 943 711762

USTEAK USTE

Desolatio

Txutxumutxu orrietan agertzen den argazkiaren izenburua hartu dut aste honetako zutabetxo bat betetzeko. Argazkia ikusi genuenean, nire lankide bat gogoratu zen Itoitzen kantuz eta arrazoi zuen. Argazkia horrela ikusita, horixe sentiarazten dizu, eta bertara joanez gero, sentitzen duzuna ere ez da motz gelditzen.

Desolatio, hondamendi edo atsekabea bezala itzuli dute. Bata zein bestea balekoak dira Seber Altuben dagoena deskribatzeko. Atsekabea, zuhaitzik gabe San Frantzisko-klo austroetako pareta zaharrak ageriago gelditu direla eta, zahar itxura, lagata dagoen itxura, nabariagoa delako.

Hondamendi ederra egin dutelako. Konponketak direla eta moztu dituzte arbolok, baina berriro ez dituzte ipini behar ba? Orduan, zergatik moztu eta ez sustraitik atera eta gorde?

Ikusiko dugu nola gelditzen den mondra-goetarrendako hain maitagarria den Seberreko txoko hori.

Bitartean, espekulatzen segituko dugu zelan geldituko diren zuhaitz mota berriak.

Marijo Deogracias



Hau da! Kmk/00

* Oskar Elizburu

Hau Da! Gure Festa. Azpeitiko Ikasberri ikastolari egokitu zaigu urriaren batean ospatuko den Gipuzkoako ikastolen festa erraldoia antolatzea. Gogo eta ilusio handiz hartu dugun erronka da hau, eta guretzat garrantzitsua den erronka gainera. Ikastola berria izanik eta publikazio legea pairatu eta gero, gure ize-na eta izana Euskal Herri osoan zabaltzeko aukera paregabea ematen digu.

HAU DA! KMK/00 lelopean Azpeitiko Ikasberri ikastola osatzen dugunok gure helburu eta nahiak zeintzuk diren zehazten saiatu gara. Euskal Eskola Nazionalaren aldarrikapena, euskara bermatzea eta gurasoek seme-alaben irakaskuntzan duten garrantzia adieraztea, hauek dira hitz bitan gure helburuak. Eta horretan jarri ditugu gure ilusio eta gogo guztiak. Guraso, ikasle, irakasle eta laguntzeko prest agertu diren guztiek 365 egun daramatzagu festa hau antolatu nahian. Ez da lan erraza, baina bai gustu-

ra eta konpromiso hartu duguna.

Gaur egun egiten den Kilometroren festak ez du zerikusirik garai batean ospatzen zenarekin. Garaiak aldatu egin dira eta kilometroen jaia ere aldatu egin da. Egundak batera mugatzen zen aldarrikapen festa, urte osora zabaldu da orain. Azpeitiko Ikasberri ikastolako kideok urte osoa daramagu mila eta bat ekintza antolatzen, gure ize-na eta izana Euskal Herri osoan zabaltzen. Hau da, KMK/00 lelopean eta Ikastolen oihartzuna luzatzeko asmoz, kirol, bertso eta musika ekitaldi ugari egin ditugu. Ekintza hauekin urriaren bate-


an ospatuko den festa erraldoirako indarrak batzea besterik ez dugu egin.

Guztia prestatuta dago 2000ko kilometroren jaialdi hau behar den bezala ospatzeko. Paisaia eder batean eta zirkuitu lau batean, denentzat aproposa eta edonork egiteko modukoa den bidea prestatu dugu kilometroz kilometro euskararen eta ikastolen oihartzuna Euskal Herri osoan zabaltzeko.

Lerro hauen bitartez gonbita zabaltzea beterrik ez zaigu gelditzen, zuen laguntza eta parte hartzerik gabe festa erraldoi hau ez baita ezer izango. Beraz, esana gogoratzea besterik ez da gelditzen: guztiok gonbidatuta zaudete datorren urriaren leian Azpeitian ospatuko den KILOMETROAK 00 festara.

- HAU DA
- IKASTOLAREN FESTA
- HAU DA
- EUSKARAREN FESTA
- HAU DA
- EUSKALDUNON FESTA

* KMK/00 batzordeko kideak



Altzariak
Diseinua
Apainketa
ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
 Tel.: 943 79 08 07

hildakoak

- Jose Agapito Azkarate Isasmendi, irailaren 13an. 90 urte.
- Juana matilde Beniro Hernandez, irailaren 14an. 69 urte.
- Damiana Orobengoa Beitia, irailaren 20an. 90 urte.
- Jose Irasuegi Iburguren, irailaren 22an. 81 urte.

jaiotzak

- Maialen Alonso Sanchez, irailaren 12an.
- Lorea Oliden Landaluze, irailaren 14an.
- Urtzi Urizar Giraldo, irailaren 15ean.
- Unai Pascual Herreros, irailaren 21ean.
- Miren Gonzalez Perez de Albeniz, irailaren 20an.
- Mikel Arana Barrutia, irailaren 24an.
- Jon Garai Gomez, irailaren 23an.

ezkontzak

- Juan Jose de la Concepcion da Silva eta Ana Maria Galan Rocha, irailaren 9an.
- José Manuel Pierrugues Perez eta Maria Natividad Diez Gonzalez, irailaren 23an.
- Valentin Alfonso Gonzalez Ocariz eta Rakel Belategi Arenaza, irailaren 22an.

mezak

San Joan parrokia

Larunbata
19:00 (elebiduna)
Igandea
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza

Larunbata
19:00 (elebiduna)
Igandea
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz)

Uribarri parrokia

Larunbata
19:00 (elebiduna)
Igandea
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)

San Andres eliza

Larunbata
19:00 (elebiduna)
Igandea
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz)

Santa Teresa eliza

Larunbata
19:00 (elebiduna)
Igandea
10:30 (gaztelaniaz)
11:30 San Isidron (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)

Santamañako eliza

Jai egun bezpera eta larunbata
19:00 (gaztelaniaz)
Igandea
12:00 (gaztelaniaz)

eskelak

Eskelak, esker onak eta urteurrenak jartzeko tartea

Azken eguna:
asteazken eguerdira arte

Tel.: 943 71 23 91

Damiana Orobengoa Beitia

2000.eko irailaren 20an hil zen, 89 urte zituela.



Gure doluminik sentikorrena adierazi nahi genioke bere familiari eta bereziki, bere iloba den Aitor Orobengoa, ARKOk lehendakariari.



LEHENENGO URTEURRENA

Maria Luisa Egidazu Pagaldai

Urtebeteko meza, Musakolako San Isidro elizan
2000.eko irailaren 30ean, eguerdiko 13:00etan ospatuko da.

Aurrez esker ona bertaraten zareten guztioi.
Bere familiak.

ESKER ONA

Libe Iñarra Zapirain

2000.eko abuztuaren 29an hil zen

Salaberri Iñarra senitartekoen partetik
esker mila Libe berotasunez
agurtu duzuen lagun
eta herritar guztioi.

JADE
ILE APAINDEGIA

Maritxu Kajoi
egunerako makilatu eta orraztu
3.300 ptatik aurrera

ZATOZ!

Maalako Errabala, 21-B
ARRAGATE • Tel.: 943 77 16 31



TXIRRITA
Taberna

Garagardo ona
Giro hobea

Gesalibar auzoa
Tel.: 943 79 10 35

29

ostirala

■ ZINEMA

60 Segundos, 19:00 - 22:00, Alai zineman. 13 urte-tik aurrerakoentzat.

■ GRIPEAREN AURKA

Musakola auzoan gripear-en aurkako txertaketa kan-paina egingo da. Auzo alka-tetzan. 12:00etatik 13:00eta-
ra.

■ GAYARRE KANTU
LEHIAKETA

Julian Gayarre kantu lehiaketako finalistek emal-dia eskainiko dute Amaia Antzokian, 20:00etan.

30

larunbata

■ ZINEMA

Shanghai Kid, 17:00, guz-tiontzat. 60 Segundos, 19:30 - 22:00, 13 urte-tik aurrerako-entzat. Alai zineman.

■ EAREN XIV.
URTEURRENA

Eusko Alkartasunaren XIV. urteurrena ospatuko da irailaren 30ean Arrasaten. 12:00etan Meza San Fran-tziskon eta 14:00etan Bazka-ria Alkartetxean.

■ KIKO VENENO

Jam aretoaren 4. urteurre-na ospatzeko, Kiko Veneno eta Arde Asiaren kontzertua izan-go da. 22:00etan.

1

igandea

■ ZINEMA

Shanghai Kid, 17:00, guz-tiontzat. 60 Segundos, 19:30 - 22:00, 13 urte-tik aurrerako-entzat. Alai zineman.

■ KILOMETROAK

Autobusak antolatu ditu AEDk Azpeitira joateko. Gari-bain, 9:30ean. Txartelak 1.200 pezetan, AEDn.

**Maritxu Kajoiko
Nobenaixue**

Egubakoitzean, 18:30ean, izango da Maritxuren Nobenaixue. Umore onaren truke, Arabako errioxar ardoa eta gazta banatuko dira. Animatu, eta ez kale-rik egin gero aurtengo Mari-txu Kajo jaien hasierari!

2

astelehena

■ ZINEMA

60 Segundos, 19:00 - 21:30, Alai zineman. 13 urte-tik aurrerakoentzat.

3

asteartea

■ ZINEMA

60 Segundos, 19:00 - 21:30, Alai zineman. 13 urte-tik aurrerakoentzat.



Udalatx
Inmobiliaria

- Etxeak, lokalak, ... saldu-erosi
- Tasazioak
- Fiskal Aholkularitza
- Errentamenduak
- Kontratuak

Etxebizitza berriak salgai

- Arrasaten Ferrerias kalean.
- Aretxabaleta erdialdean.

Maalako Errebala, 27 behea ▪ Tel.: 943 79 59 99

Hezkidetzak ikastaro teoriko praktikoa

AUKERA BERDINTASUNERA BIDEAN...

Helburuak: Hezkidetzan, oinarritzko prestakuntza jasotzea.

Eskola esparruko familiei zuzendutako proiektuan praktikaldia egitea.

Norentzat: Hezitzaile moduan lanean ari den edo prestakuntza duen persona interesatuentzat (irakasletza, gizarte lana, soziologia, psikologia ikasketak burututa edo karrerako azken urteetan).

Emilea: Urtxintza eskola.

Noiz: 2000-2001 ikasturtean, urritik ekainera.

Informazioa eta izen ematea Arrasateko Udaleko 943 79 09 00 edo 943 79 41 39 telefonoetan.



ARRASATEKO UDALA Emakume Salla Hezkuntza Salla



San Migelak Garagartzan

EGUBAKOITZA, 29

- 19:00** Meza.
19:30 Ikurrinaren jasoe-
 ra, etxafferoak eta
 kalejira.
22:00 Dantzaldia.
00:00 Laminei eta
 Neanderthalei
 ongietorria.
 Ondoren, dantzal-
 dia.

ZAPATUA, 30

- 12:00** Meza hildakoen
 alde.
12:00-14:00 Puzgarriak.
16:00-19:00 Puzgarriak.
18:00 Autoen Garagartza-
 ko II. Saria.
19:30 ToriShow.
22:30 Dantzaldia.
04:00 Txokolate jana.

DOMEKA, 1

- 12:00** Meza nagusia.
12:30 Euskal dantza
 erakustaldia.
14:30 Auzo bazkaria,
 mus eta briska
 finalak.
18:30 Erromeria.

■ GIMNASIA ERRITMIKOA

Hasi ditu entrenamen-
 duak Arrasate Gimnasia
 Taldeak, eta sartu nahi
 duen edonorentzat zabal-
 zabalik ditu ateak. Baldin-
 tza bakarra, 1995ean edo
 lehenago jaioa izana. Izen
 ematea: 610 20 50 71
 telefonoan.

■ MENDI IBILALDIA

Aitor Aranaren omenez-
 ko IV. Mendi Ibilaldia
 antolatu du Aramaioko
 Orixol mendizale elkarteak,
 urriaren 1erako. Aramaioko
 kiroldigitik irtengo da,
 8:00etan. Ibilbidea launaka
 egingo da. Izen ematea:
 943 79 73 54 telefonoan,
 Oihana.

■ OSASUN KONTSULTA

Orotariko osasun
 kontsulta eskaintzen du
 Jose Luis Abuinek: norbera-
 ren zainketarako ikastaro-
 ak, kontsulta naturista,
 esku terapiak eta ekialde-
 ko terapiak. Argibideak:
 943 77 01 33 edo 943 77
 16 77 telefonoetan.

■ PERKUSIO IKASTAROA

Perkusio ikastaroa
 eskaintzen du Iñaki Bruña
 musikariak. Urriaren 2an
 hasiko da, Gazteluondoko
 Aretoan. Hastapen eta
 sakontze mailak jorratuko
 dira. Izen ematea: 943 77
 00 65 edo 943 79 80 25
 telefonoetan.

■ EMAKUMEENTZAKO JARDUNALDIAK

Udal Emakume Sailak
 tailerrak antolatu ditu.
 Bata literaturaren inguru-
 koa izango da, irakurzaleta-
 suna sustatzeko; urriaren
 25ean aurkezpen hitzaldia
 izango da Monterronen.
 Bestea, hazkunde pertso-
 nal eta autoestima tailerra:
 urriaren 10ean hasiko da
 izen ematea.

■ DANTZA IKASTAROA

Urriaren 9tik hasita,
 dantza ikastaroa eskainiko
 du Ekin Emakumeak
 elkarteak. Areto eta
 karibear dantzak emango
 dira nagusiki. Hastapen eta
 sakontze mailak landuko
 dira. Izen ematea, Ekin
 Emakumeak-en egoitzan.

■ LOGOTIPO LEHIAKETA

Deba ibarreko euskal-
 kiak ikertzeko sortu berri
 den Badihardugu Euskara
 Elkartiak bere logotipoa
 sortzeko lehiaketa antolatu
 du. Testua: Badihardugu
 (Deba Ibarreko Euskera
 Elkartia). Epea: urriaren
 18a, zuzenbide honetan:
 Badihardugu Elkartia,
 Aldatze kalia 1-3, 20.600
 Eibar.

Dantza ikastaroak

Dantza karibearrak eta areto dantzak.
 Hastapen eta sakontze mailak.

NOIZ:..... Urriaren 9tik
 abenduaren 18ra arte.
 Astelehenero. 15:00-16:30.
 IRAKASLEA:..... Natalio Maiztegi.
 NON: EGIN emakume
 elkartearen egoitzan.
 IZEN EMATEA:.. Urriaren 6ra arte.

Antolatzailea:



Ekin Emakumeak
 Pablo Uranga, 6 behea
 20.500 ARRASATE
 Tel.: 943 77 12 28

Laguntzaileak:



ARRASATEKO UDALA Emakume Saila ■

S U S I

ILE APAINDEGIA

Hurrengo adierazi nahi diegu gure bezero agurgarriei:

Berlinen izango den munduko ile
 apaintzaile lehiaketa dela eta,
 datorren **irailaren 30ean eta**
urriaren 2tik 4ra,
ILE APAINDEGIA ITXITA
 egongo da.

BERLIN

Gure partetik, barkatu eragozpenak eta
 bueltan azalduko dizkizuegu datorren urteko orrazkerak.

Tel.: 943 79 50 27

astea bi hitzetan

■ **Iruzurra Mondragoen**

Pasa den astean zehar, herriko dendetan iruzur egin nahian ibili zen mutil bat. Guinness errekorra gainditzeko froga bat egiteko aitzakiaz, dendariei publizitatearen truke dirua eskatzen ibili zen. Denda askotan eskatu zuen dirua, eta jaso ere bai.

Kontua da, orain hamabost egun, 22 urte inguruko mutil batek Arrasateko herriko plazan Guinness errekorra gainditzeko baimena eskatu zuela eta udalak ez ziola inolako baimenik eman. Udaltzainak gaztea harrapatu nahian ibili ziren, baina ez zuten lortu. Nor-

baitek ikusi badu edo bere dendara sartzen bada, Ertzaintzara edo Udaltzaingora deitzeko eskatzen zaio udaletik.

■ **Arnaldo Otegi Mondragoen**

Euskal Herritarrok alderdiak bilera izan zuen pasa den ostegunean Mondragoen. Egoera aztertu eta datozen urteotarako ildo politikoak erabakitzea zen bileraren helburua. Arnaldo Otegi, EHko bozeramailea, hemen izan zen, hausnarketa politikoan parte hartzen. Bilera, osoko bilkura aretoan izan zen; jendez bete-bete egin zen aretoa.

■ **Gaitzespen bilkura**

Bakearen Aldeko Koordinakundeak deituta, Jose Luis Ruiz Casado PPko zinegotziaren hilketaz protesta egiteko bilkura egin zen pasa den ostiralean. Ohi bezala, Lau Kale plazan egin zen bilkura.

■ **Elikaduraz berbetan**

Eroskiren eskutik, elikadura hizpide duten hainbat gai jorratu dira aste honetan. Janariaren segurtasuna landu izan da hitzaldi saioan, baita jaki transgenikoak ere. Hirugarren egunerako, berriz, Mediterraneoko dieta aztertu da.

Jende ugari parte hartu du hitzaldiotan.

■ **Ikasturte hasiera**

Mondragon Unibertsitateak pasa den ostegunean egin zuen aurtengo ikasturtearen aurkezpena. Amaia Antzokian izan zen eta Euskal Autonomia Erkidegoko agintari asko egon ziren ekitaldian, tartean, Iñaxio Oliveri Hezkuntza Sailburua, Roman Sudupe Gipuzkoako ahaldun nagusia eta Euskal Herriko eta Deustuko unibertsitateetako errektoreak.



“Izuli egin nahi dut, Felixek eta biok egin genuen bidetari jarraitu nahi diot. Mendian ibiltzea da egiten dakidana, egin nahi dudana, eta nire barruan indar bat dago, itzultzeko eskatzen (...). Nire itzulera-aren arrazoi nagusia da, hori egin nahi nuelaz oso ziur nengoela; beraz, ez dut nahi omenaldia aitzakia bat bezala hartzea. Horrek, dena dela, ez du kentzen gailurrak egin eta gero, eskaintza eta omenaldia Felixentzat izatea”.

ALBERTO IÑURRATEGI
DV
(2000.9.23)



URONDO
Elektrizitatea

- * **Elektragaiak**
- * **Instalazioak**
- * **Automatismoak**
- * **Proiektuak**
- * **Argiztapena**
- * **Bobinaketak**

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

MU, CIM eta EMUN elkarlanean

Mondragon Unibertsitateak lankidetzaz hitzarmena sinatu du CIM hizkuntza eskolarekin eta EMUN kooperatibarekin.

Horren arabera, sortu berri den Hizkuntzen Psikopedagogia izeneko karrerako ikasleek praktikak egin ahal izango dituzte aipatutako lekuetan.

Sinadura ekitaldia Eskoriatzako fakultatean egin zen pasa den asteazkenean. Hantxe izan ziren, Adelaida Maidagan CIMeko zuzendaria, Jesus Garmendia fakultateko dekanoa, Dani Larrea eta Juan Luis Arexolaleiba EMUNen ordezkari moduan eta Matilde Saiz, Hizkuntzen Psikopedagogiako arduraduna.

GABEZIAK GAINDITZEKO

Hitzarmen horren bidez, lane-



an dauden gabeziei aurre egin nahi zaie. Izan ere, orain arte ikusi denez, ikastetxeetatik ateratzen diren langile berriek teoria ondo dakite, ez, ordea, praktika.

Horrez gain, gure herrian dagoen egoera ere kontuan hartu behar da; hau da, gurean, elkarrekin bizi behar duten

bi hizkuntza daude eta horrek ere behar jakin batzuk sortzen ditu.

Bestalde, hitzarmen berri horrez gain, aurrera begira inguruko zenbait udal eta erakundeekin antzeko hitzarmenak sinatzeko asmoa du Mondragon Unibertsitateak.


Aita Menniren Eguneko zentroa

Gaur egun dagoen eskaerari erantzuteko asmoz, Aita Mennik bere eguneko zentro psikogeriatrikoa zabalduko du. Orain arte, udalak Cerrajera inguruan agindutako leku baten zain egon da Aita Menni. Baina, azkenik, Uribe Auzoan ospitale horrek duen lanbide tailerrean kokatuko da.

Aita Mennik, lantokiaz gain, 20 pertsonarentzako eguneko zentroa zeukan Urriben. Tokia nahiko txikia zen eta eskaria, berriz, handia. Hori izan da zerbitzu berria zabaltzeko arrazoia.

Eguneko zentro psikogeriatriko berriak 35 pertsona hartuko ditu. Horretarako, tokia bera handitzeaz gain, komunak ere gehitu dira. Orain arteko lantokiak, berriz, beste nonbait jarriko dira.

Gudari Eguna



Txiki eta Otaegiren hilketa-
ren urteurrenean, irailaren
27an, kale agerraldia egin zen
Mondragoen.

Aurten, gainera, Gudari
Egun berezia ospatu da: XXV.
"Askatasunaren bidean nazio
eraikuntza borrokatu" lelo-
pean kale agerraldia egin zen.
Kale agerraldiaren ibilbide-
an hainbat geldiune egin ziren
hildakoei omenaldia egin eta
lore sortak eskaintzeko: kan-

posantuan lehenengo, Gari-
baiko aparkalekuan ondoren
(hildako eibartar batzuen
omenez); Udalako Plazan
segidan (Roberto, Zapa eta
Emiliren omenez) eta Mon-
terronen, azkenik, Pakito
Arriaranen omenez. Ekitaldia
Herriko Plazan bukatu zen.
Ertzaintza irten zen eta age-
rraldiaren irudiak hartu zituen,
baina iaz ez bezala, aurten ez
zen istilurik izan.

Hezkidetzaz

Emakume eta gizonezkoen artean aukera berdintasuna lantzeko heziketa bultzatuko du herriko udalak. Hezkidetzaz, oinarriko prestakuntza jasotzea da ikastaroaren helburua eta baita eskoletako familiei zuzendutako proiektuan praktikak egitea ere. Helburuak dioen moduan, ikastaroa teorikoa eta praktikoa izango da. Urriaren bigarren hamabostaldian hasi eta ekainera arteko iraupena izango du. Abendua bitartean, teoria emango da eta urtarriletik aurrera, berriz, praktika. Praktikak egiteko, Arrasateko ikastetxeekin elkarlana hitzartu du udalak. Guztira, 25 orduko eskolak emango dira, astean behin.

Bereziki hezitzaile moduan lanean ari direnendako dago zuzenduta ikastaro hau; baita ere gizarte zientziak ikasten ari diren azken ikasturteko ikasleei edo langabeei ere. Interesatuak urriaren 18a baino lehen eman behar dute izena udaletxean.

Ikastaroa Urtxintxa Aisialdirako Eskolak emango du. Antolaketa, berriz, udaleko Hezkuntza eta Emakume Sailean esku dago, Emakundearen laguntzarekin.

Lan orientabidea

Arrasateko Udaleko Emakume Sailek ikasketa maila baxua duten emakume langabeei zuzendutako ikastaro bat jarriko du abian. Astean hiru egunez emango dira eskolak, goizean 9:00etatik 12:00ak arte. 15-20 pertsonarentzako lekua dago eta izena emateko epea urriaren 6an bukatuko da. Interesatuak udaletxeko Emakume Sailean galdetu behar dute.

Ikastaroa, berriz, urriaren 18an hasiko da.

Asfalto lanak

Gobernu Batzordeak herriko hainbat kale asfaltatu eta zulo-guneak betetzeko lanak adjudikatu ditu aste honetan. Hartutako erabakiaren arabera, Construcciones Publicas Copri-sa SA enpresak egingo ditu lanok. Bereziki, baserri bideak asfaltatuko dira. Hilabete-ko epean egingo dira lanak, 11 milioi pezeta pasatxoko aurrekontuarekin.

BASERRI BIDEAK

Diru kopuru horretatik 5 milioi pezeta pasatxo Ugaldegain, Ugaldeazpi, Ugalazpi eta Etxebarri baserrietako bideak asfaltatzen erabiliko da. Gesalibarrren ere zuloguneak betetzeko lanak egingo dituzte, Santa Ageda auzoko plazan hasita (plaza barne) Paziola baserri-arte. Horrekin batera, indusketa lanak ere egingo dira.

KIROLDEGIA

Beste 5 milioi pasatxorekin kiroldegiko aparkalekua asfaltatuko da. Eta, horrez gain, aparkaleku hartan dagoen oinezkoen babesgunea hormigoituko da beste bi milioi pezetako inbertsioa eginez.

Zazpi geltoki berri

Herri autobusak zazpi geltoki berri izango ditu. Eskaera egin dela eta, Leintz Garraioak enpresak egokitu ikusi du eskari horri erantzutea. 1 linea, Alecopen, Muxibarren, Kristo Obrero auzo inguruan eta Maalako Errabaleko biribilean geldituko da eta 2 linea, Alecopen, Cristo Obrero inguruan eta Muxibarren. Astelehenean ekin nahi diote geltoki berriei, beti eta lurreko marrak egiten badira.

Hiru mozio eta udal haur eskola

Uda osteko aurreneko osoko bilkura egin zen atzo udal-letxean. 20 gai zeuden aurrez ikusita, tartean hiru mozio eta udal haur eskolaren esleipena.

Izan ere, udal haur eskolaren zerbitzua emateko lehiaketa publikoaren epea bukatu da eta orain, adjudikazioa egiteko txanda da. Enpresa bakarra aurkeztu da lehiaketara: Umezaintza; eta, jakina, udal haur eskola zerbitzua Umezaintzari egokitzea da asmoa.

Artikulu hau idaztean, osoko bilkura oraindik egin barik zegoen, beraz, ez dago gertatutakoaren berri jakiterik. Dena dela, litekeena da udal haur eskolaren zerbitzua Umezaintzari ematea.

MOZIOAK

Udal haur eskolaz gain, hiru mozio ere aztertu zituen atzoko udalbatzarrek. Bate-tik, EAJ alderdiak Jose Luis Ruizen heriotza eta "azkenaldian gertatu diren heriotza guztiak" gaitzesteko mozio bat aurkeztu zuen. ETari indarkeria jarduerak uzteko eskaera ere egin dio



Umezaintza da lehiaketara aurkeztu den enpresa bakarra.

eta hemengo arazoak konpontzeko bide bakarra elkar-riketa eta oinarri demokratikoak direla berretsi du, besteak beste.

EAK, bere aldetik, Lizarra-Garaziko Adierazpenaren bigarren urteurrena betetzen dela eta, beste mozio bat aurkeztu zuen. Lizarra-Garaziko printzipioen balioa berresten du, batetik. Bestetik, Udalbiltzak onartutakoarekin bat eginez, ETari exijitzen dio "Euskal Herriko gizarteari bere etorkizuna bakean eraitkitzen utz diezaioa". Azkenik, gatazkak konpontzeko bide bakarra elkarriketa dela eta, indar politiko guztiei elka-

rrekin hitz egiteko deialdia ere egin die.

Hirugarrenik, EHk ere Lizarra-Garazi izan du hizpide aurkeztutako mozioan. Hitzarmen horren edukia abian jartzeaz gain, honako proposamenak egiten ditu, besteak beste: oraingo gatazkaren konponketa elkarriketaren eta negoziazioaren bidez gauzatzeari, "Euskal Herriaren bizi-raupenerako marko demokratiko eta nazional berri bate-rantz jotzea", udalek erabakiak hartu eta praktikan jartzeko subiranotasun osoa dutela baieztatzea eta Udalbiltzari eskatzea beregain hartzeko udalen erabakien defentsa.

Musika kalean, ostiralero

Gaur hasi eta Gabonak artean musika izango dugu ostiralero herriko kaleetan. Kaleko giroa alaitzeko ekimena da hauxe, Ibai-Arte merkatarien elkarteak asmatutakoa. 18:00etatik 20:00ak arte izango da kale animazioa. Herriko Alde Zaharrean eta Seber Altube eta Abaroa inguruetan ibiliko dira musikariak.

Denetarikoa musika mota izango da, gainera. Gaur, trikitixa entzun dugu; hurren-



goan Arrasateko Banda ari-txalapartariak... Denon gus-tuko da, edo saxofonistak, tua asetzeko musika.

Gazte ikastaroak

Argazkigintza

ASArekin elkarlanean

- Hastapen mailakoa
- urriak 21- abenduak 2 (21 ordu)
- larunbat goizetan, 10:30etatik 13:30etara.
- matrikula: 5.000 PTA
3.000 pta ikasle eta langabeek.

Euskal dantzak

Lore Gazteak taldearekin elkarlanean


- 10 urtetik gorakoei zuzendua
- urriaren 20tik Santamasak arte
- ostiraletan, 19:00-20:30
- matrikula: 1.000 PTA

Karibeko dantzak

- hastapen eta sakontze mailak
- urriak 16 - abenduak 4
- irakaslea: Julio Lantigua
- ikastaro egunak: astelehen eta asteazkenetan
- ordutegia: hastapen maila: 19:30 - 21:00
sakontze maila: 21:00 - 22:30
- tokia: Musakolako Gazte Txokoan
- matrikula: 4.000 PTA
2.500 PTA ikasle eta langabeek.

EHIZAREN ONDOREN, BAZKARIA

Ehiza eta arrantza txapelketak egin zituen joan den asteburuan Leintze Elkarateak. Arrantzan, Jon Telleria eta Asier Abasolo izan ziren sarituak, eta ehizan, Carlos Ganuza eta Francisco Sevillano. 40 lagun elkartu ziren ondorengoko bazkarian.



weru[®]
Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95
ARRASATE




Salterain

PVC-zko ate eta
leihoez gain:
moksetak,
zoru arinak,
kortxoa,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, testila...

RUPER MULTIMEDIA

Hau bai abeslari multimedia, *Ruper Ordorika!* Oñatin emanaldia eskaini behar zuela eta, *Arrasate Irratira* etorri zen, GOITBko kamerak ere hantxe izan zituen zelatan, eta orain, *Arrasate Pressen* duzue.



DESOLATIO!

Desolazioa, horixe datorkigu burura hau ikustean. Propio datorkio Seber Altube plazari *Itoitzek* abestutako hura. Zuhaitzik gabe, basamortua dirudi plazak. Gerizpe goxoa noiz bueltatuko ote?



Zatoz eta eman izena!

IDIOMASTER

2000/2001 IKASTURTEA

HIZKUNTZAK:

- Ingelesa.
- Frantsesa.
- Alemana.
- **Italiera (berria).**
- Jatorrizko irakasleak.
- Talde txikiak.
- Maila guztiak.
- Adin guztiak: Heldu, gazte eta umeentzako hasiera ikastaroak (6 urtetik aurrera).
- Ordu-tegi bereziak txandaka lan egiten dutenentzat.
- Cambridge azterketarako prestakuntza.
- **Frantseseko ikastaro trinkoak**
- Ikasturtearen hasiera: Urriaren 2a.

TXIKIAK ETA EZ HAIN TXIKIAK



Aramaiko Txirritola elkarteak jaialdi ederra egin zuen joan den zapatuan. Txirritolaren bazkarira euskara elkartearen elastikoak jantzita joan ziren aramaioarrak.

Arratsalde pasa animosoa egiten laguntzeko, *Takolo, Pirritx eta Porrotx* izan ziren, eta, ikusi bezala, txikiak eta ez hain txikiak erakarri zituzten.



Gaur ostirala, irailak 29, Budweiser jaia
KAJoi tabernan 23:00etatik aurrera

Gau osoan zehar, 25 minuturo, Realeko 10 elastiko ofizial zozkatuko dira

Ez ahaztu Ostantzen ziber kafea daukazula: www.ostantz-arrasate.com

Bailarako aurpegiak eta kontuak barra-barra

Goiena Telebistak dagoeneko prest dauka denboraldi berriko programazioa. Saio berriak eta ez hain berriak, berriztatuko beste batzuekin tartekatuko dira astelehenetik ostiralera bitartean. Asteburuan, berriz, errepikak ikusteko aukeraz gain, umeentzako Jolasplast saioa eskainiko digu debagoiendarroi.

Informazioaren eta entretenimendu saioen artean, gustu guztientzako lekua egin dute Goiena Telebistakoek. Musika, albisteak, enpresak, txutxumutxuak, osasuna, kirolak, berriketaldiak, elkarriketak... Eta hau gutxi balitz, saltsa goxo-goxoak dastatzeko aukera ere eskainiko digu GOITBren denboraldi berriak.



Haika Aizpurua

Miren Gonzalez

Astelehenean bertan ekingo dio neguko denboraldiari Debagoieneko telebistak. Irailean Berriak ikusteko aukera izan dugu, baina urriaren 2an, bailarako kirolari buruzko informazioa itzuliko da Goienasportekin. Kirola izango da nagusi ordu erdiz saio horretan, baina gauza guz-

tiak zahartzen direnez, kirol tartea ere berriztu egin dute.

INFORMAZIO TARTEAK

Berriak, Astebete, Goienasport, Mahai ingurua, Aurrez aurre. Alkatearekin berbetan eta Ekilan.


Hauexek izango dira denboraldi honetan informazioa landuko duten saioak.

GOIENASPORT astelehenero, 21:30ean.

Goiena Telebistak bailarako kirol taldeen nondik norakokak kontatuko dizkigu aste-ro. Gorka Etxabe lehenengo zatian futbolaz arituko da, baina saskibaloia, eskubaloia, atletismoa, txirrindularitza, xakea, pilota eta beste

hainbat kirol ere aztertuko dira, Goienasport saioan astelehenero.

Horrez gain, tarte bereziak egingo dira, hala nola gutxiago segitzen diren kirolari buruzko erreportajeak, bailarako kirolari profesionalekin elkarriketak eta aspaldiko kirolariei eskainitako tartekak.



ALBISTE AURRERAPENA egunero, 13:30ean.

Albiste aurrerapenak aurreko denboraldian bezala segituko du: hiruzpalau albiste eta eguneko egunkarietako argazki adierazgarria erakutsiko dizkigu, eta horrekin batera, burtsari buruzko informazioa eta eguraldia ere egongo dira.

BERRIAK egunero, 20:00etan, 20:30ean eta 21:00etan.

Maidar Osak segituko du Berriak tartea aurkezten.

Iraileko traza bera izango du albistegi nagusiak: Debagoieneko albisterik nagusienak jasoko dira egunero. Horrez gain, egunero tartea berri bat hasikodute, orain arte asteazkenero egin izan duten bezala. Astelehenetan, kirolaren tartez Gorka Etxabe arduratuko da; martitzenetan, "Sarean" tartea aurkeztuko digu Alberto Izagirre atxalbaltarrak, Interneten inguruan; eguaztenetan, "Solasean" tarteari eutsiko dio Berriak-ek, bost bat minutuko elkarrizketak egiten; egunetan, "Ikusmiran" tartean bailarako txokoak eza-gutzeko aukera eskainiko digu eta egubakoitzetan, berriz ere kirolak hartuko du tartea hori.

ASTEBETE ostiralero, 21:00etan.

Egunero Berriak saioan jasotako albisteen errepasso honek ere izango du berritasunik denboraldi honetan. Hasteko, aurkezlea izango da:

Marijo Deo-gracias. Berarekin batera, bes-

te bi iritzi emaile arituko dira albisteen gainean duten ikus-puntuaz berba egiteko.

ALKATEAREKIN BERBETAN hamabostean behin, asteazkenean, 21:30ean.

Saioaren helburua da udalak eta herritarrek hurbiltzea eta Debagoieneko herritarrek aukera izan dezatela euren alkateei entzuteko, telefono bidez galderak egiteko edo hainbat arazoren aurrean iritziak azaltzeko.

Bederatzi herrietako alkateak GOITBko erredaktore buruarekin eta beste bi kazetarirekin batera egongo dira platoan; horietako bat, alkatearen herri berekoa izango da.


MAHAI INGURUA hileko azkenengo asteartean, 21:30ean.

Ezaguna den tartea honi ere eutsiko dio denboraldi berrian Goiena Telebistak. Pil-pilean dagoen gai bat hartu eta lau gonbidatuk horren gainean eztabaidatuko dute.

Gaia aurkezteko balioko duen erreportaje batekin hasiko da aldiro saioa eta kale inkesta ere egingo da egun horretako gaiaren inguruan. Era guztietako iritziak jasotzeko tartea izango da, beraz, Mahai ingurua.

ENTRETENIMENDUA NAGUSI

Gure aisialdia beteko duten saioak ere asko izango dira



GOITBn. Egunik egun joanez gero, martitzenero Xeleberrriak, egunero Hamaika Magazin eta eguen eta egubakoitzero Soinuz Blai izango ditugu aukeran. Horrekin batera, astelehenetik egubakoitzera GOITBko sukaldaria sartuko gara, jaki eder eta goxoak dastatzeko.

XELEBERRI hileko lehenengo hiru martitzenetan, 21:30ean.

Unai Iparragirre aski ezaguna da guztiontzat, baina berarekin lanean jardungo duten kideak, ez hainbeste. Iratxe Eguen izango da berarekin batera albistegi berezi honetako gidaria, baina beste zazpi lagunengana laguntza izango dute: Maier Uranga, Kepa Errasti, Iraia Aginagalde, Jon Tena, Ane Miren Zabala, Igor Larrañaga, Jon Zubiaga eta Eneko Eraña. Hauek denak Debagoieneko herri guztietako kaleetan gora eta behera ibiliko dira, GOITBko mikrofonoenkin albiste bitxiak gaineko



iritziak jasotzen. Izan ere, albistegi berezi honek izenburu nagusietara ekarri nahi ditu egunkarietako azken orriko albisteak, alegia, beste albistegi guztietan bigarren mailako kontuak direnak, Xeleberrin albiste nagusi izango dira. Eta berri horien gaineko iritziak jasoko dituzte berriemaileek kalerik kale. Horrez gain, asteko berrien erreposoa ere egingo du albistegi honek, baina beti Xeleberriren ikuspuntutik. Eta honi freskotasuna emateko, Eneko Erañak Euskal Herriko fama-tuei buruzko erreportajeak eskainiko ditu.

Zuzeneko saioa izango da eta etxekoek parte hartzeko lehiaketa ere egingo da. Jokoa oso erraza da: albiste bat aurkeztuko dute eta hiru izenburu emango dituzte aukeran. Lehiakideek izenburu zuzena asmatu beharko dute.

Beraz, aspertzeko astirik ez dugu izango Unai eta Ira-xteri esker.

HAMAIKA MAGAZIN ostegunero, 21:30ean.

Heziketa saioa izaten segituko du, iazko denboraldian horrenbeste arrakasta izan zuten saio honek. Baina, berri-tasan bat izango du: Amagoia Lasagabaster. Atxabaltar honek aurkeztuko dizkigu osasuna, sexualitatea, yoga, lore-zaintza eta bestelako kontuak, adituen esanekin batera.

Hotel Mondragoneko plattotik egingo du hori.

Argazkigintza tartearekin batera, lehiaketa ere egongo da. Ikatz



argazki dendak eskainitako argazki kamera reflex bat zotz egingo da.

EKILAN hileko azken ostegunean, 21:30ean.

Alberto Gorritiberea ere izango da geurean aurtien. Aurreko denboraldian bezala, bailarako jarduera ekonomikoaz arituko da, industriad eta nekazaritaz, hain zuzen ere. "Elkarritzeta", "Zer egiten da?", "Zer egiten du", "Poltsa" eta "Albistegia" izango dira saio honen atalak. Azken batean, bailaran jarduten diren ekimen ekonomikoen berri emango digu, Herri Irratiko esatariak.

SOINUZ BLAI egunero eta egubakoitzero, 22:10ean.

Musika gaztea, musika berria... ez, ez da Euskadi Gazteko iragarki bat. Soinuz Blai saioan ikusi eta entzun ahal izango duguna da. Miren Gonzalezek kide berri bat izango du, Haika Aizpurua. Biek, ordu erdiz, bideoklipen azken berri-tasan eskainiko dizkigute.

JOLASPLAST urritik aurrera.

Mikel Lizarralde zuzenduko du umeen tarte, baina oraingoan Txatxilipurdikoen laguntza izango du, beraz txatxilistilo bat emango diote saioari. Eta horren arduraduna, Rebeka

Torres izango da. Beraz, umeak, badakizue! Ondo pasatzeko aukera, hauxe duzue!

GATZA ETA BERAKATZA egunero, 13:40ean.

Duda barik, programazio guztiko saiorik gozoena izango da. Aurtien Fagorrek espreski gertatutako sukaldean arituko dira Debagoieneko hainbat sukaldari. Eguerdiro, albiste aurre-rapenaren ondoren, plater bana prestatuko digute gure bailarako jatetxeetako sukaldariek. Ba, horixe, on egin! ■

GOITB



Jon Zubiaga
21 urte
arrasatearra

Kepa Errasti
19 urte
atxabaltarra

Maier Uranga
21 urte
garagartzarra

Jon Tena
25 urte
antzuolarra

EDURNE ETXABE (AFAGIKO LEHENDAKARIA)

“Alzheimerrarekin familia

Eduerne Etxabek gertu-gertutik ezagutzen du Alzheimer gaixotasuna, senide bat tar-teko. Zama hori eramangarriagoa egite aldera, Afagi elkarteartan sartu zen duela zazpi urte. Gaur egun, elkarte horretako lehendakaria da iazko uztaila ezker.

— Noiz sortu zen Afagi?

— 1991. urtean sortu zen, Donostian. Talde txiki bat elkartu zen, senideren bat diagnostikatuta zuten laguntaldea. Dena dela, gaixotasuna zer zen ere ez zekiten oraindik. Elkarri informazioa eta laguntza eskaintzeko asmoz elkartu ziren, bakoitzaren esperientzia kontatu eta denen artean ikas-teko.

— Zein da Afagiren egitekoa?

— Udaletxeko gizarte laguntzaileen edo medikuen bitartez etortzen dira gaixoaren senitartekoak Afagira. Jeneralean norbaiti Alzheimerri diagnostikatu diote-

nean familia artekoak beldurtu egiten dira. Gainera, gaur egun ia guztiok dugu aldamenean Alzheimer gaixotasuna duen norbait. Lehenengo egitekoa gaixotasunaren inguruko informazioa ematea, zabaltea eta familia artekoen prestakuntza da. Familia artekoak lasaitu eta beraien kezka entzuten ditugu aurrengo. Gomendio horiek elkarteko bazkide ez direnek ere jasotzen dituzte. Bazkide eginez gero, prestakuntza ikastaroak jasotzen dituzte senideek. Sendian ikastaroak hor daude, adibidez. Ikastaro horiek ematen Afagi hasi zen, duela bederatzita urte. Dena den, zenbait udalek hitzarmena sinatu dute Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, eta orain diputazioa da zeregin horren ardura duena. Noizean behin hitzaldiak ere egiten ditugu, eta gizarte eta lan aholkularitza zerbitzua ere eskaintzen dugu: familiek nora jo dezaketean, zein laguntza dau-den... azaltzen diegu.

— Zein da gaur egun zuen eskaera nagusia?

— Gaixoen egunez eguneko jarraipena egitea eskatzen dugu. Lege aldetik ere arazo asko egoten dira: testamenduak eginda dauden edo ez... Gainera, askotan familiak bizilekua hurriz aldatzen du osasun etxetik hurbilago egiteko, eta gizarte laguntza jasotzeko eskubide guztiak galtzen dira. Alzheimer gaitzak jotako pertsona batek gastu handia du. Urtean hiru milioi pezetakoa, gutxi gorabehera. Bes-

talde, tokian tokiko udalek etxez etxeko laguntza ere eskaintzen dute, baina ordu gutxirako. Horrelako gaixoen 24 orduko zaintza eskatzen dute. Borondatez gaixoen egoten direnak ere

badaude.

Ikasleak izaten dira jeneralean: psikologia ikasten ari direnak, gizarte lagun-



“Familia bat geroz eta jende gutxiagok osatzen du, eta kalkulatu da etorkizunean etxe bakoitzean izango dela gaixo bat”

ak beldur tu egiten dira”

tzaileak... Orain etxeko andre-
ak eta erretiratu gazteak ere ari
dira laguntza eskaintzen.
Boluntario horiek 20 orduko
ikastaro bat jasotzen dute lehe-
nengo, eta gero jarraipena egi-
ten diegu. Oporretako biziki-
detza ere hortxe dago. Gaixo-
ak, familiako kide batek, psi-
kologoak, ATSak eta bizpahi-
ru laguntzailek elkarrekin iga-
roten dituzte oporrak. Aurten
Alfaron eta Islan (Santander)
egin dugu azken ekimen hau,
hamar eguneko hiru txandatan.
Jendea oso pozik gelditzen da:
familiako kideek elkarren espe-
rirentziak ezagutzen dituzte,

gaixoak eguneko zentroetara
eramatera animatzen dira...

— Zein jende mota elkar- tzen da Afagiren inguruan?

— Denok boluntarioak
gara, Afagiko sortzaile izan zen
gizarte laguntzailea eta admi-
nistratioko langile bat izan
ezik. Gehienok emakumezko-
ak gara, horrelako kasu bat ger-
tu-gertutik bizi izan dugunak.

— Aurreko astean sari bat jaso zuen Afagik Diputazioetik. Zer esan nahi du horrek zuen- tzat?

— Orain arte egindako

lanaren errekonozimendua da
guretzat. Erakunde batetik
horrelako sari bat jasotzeak
asko esan nahi du guretzat.

— Alzheimer gaixotasuna gero eta gehiago entzuten da. Kalean zein iritzi du jendeak?

— Familiak oso nabarmen
denean onartzen du senideren
batek Alzheimer duela. Asko
kostatzen da. Lehen latsa ere
ematen zuen horrelako gauza
bat onartzeak. Norberari toka-
tzen zaionean, asko beldurtzen
da jendea. Gainera gaixoa gizo-
nek zaintzen dutenean, arazo-
ak lehenago azaltzen dira.

Dena den, Alzheimerraren
aurrean ez da jartzen lehenago
susto aurpegia.

— Datorren mendeko gai- xotasun nagusia izango da. Horretaz jabetu gara?

— Nik ez dut uste.

Familia bat geroz eta jen-
de gutxiagok osatzen du, eta
kalkulatu da etorkizunean etxe
bakoitzean izango dela gaixo
bat.

Horri aurre egiteko azpie-
gitura egokia behar da, eta
erakundeak zahar egoitzak
poliki-poliki egokitzen ari
dira. ■

Aretxarte merkataritza elkartearen logotipo lehiaketa



Oinarriak: Elkarteetako komertzioetan

LEIBAR KARAKINDEGIAK Mitartea, 1 • Tf. 943 771379 Lorazendi, 1 • Tf. 943 791833	ERRASTI Kioskoa Durana, 19 • Tf. 943 799876
Maritxu Mertzeria Araba Ibilbidea, 24 Tf. 943 79 23 53	GEMES Durana, 40 Tf. 943 799918
Santa Kurtz Janari denda Lorazendi, 1 • Tf. 943 79 71 69	EDERTZE ARETON
MartiW Lorazendi, 16 • Tf. 943 79 01 72	LEKINTZ Enrekabarren, 3 • Tf. (dendakoa) 943 79 78 83 (jotzekoa) 943 79 06 84
FARMA BIZI Lorazendi, 8 Tfno.-faxa: 943 771816	IRIARTE Umeen denda eta lantzeria Durana, 6 • Tfno.: 943 79 10 96
MIREN & ZURINE BIZIKIEN DISEINUA Otalora kalea, Eliza aurrealdean Tfno.: 943 771357	TXILARRA ELIKADURA BEREZIA Durana, 35 Tf.: 943 79 10 15 Lorazendi, 9 Tf.: 943 79 44 28
IMANOL JANARI DENDA Gorbea kalea • Tfno.: 943 79 05 83	Irudi ELIKADURA BEREZIA MIXTA Enreka Barren, 20 b. • Tf. 943 799792
ALBOKA MODA JOVEN Durana, 36 • Tfno.: 943 771610	HERRASTI AKEITA ETXEA CAFES Aralar kalea, 7 • Tf. 943 79 32 83
RITZORROTZ ELECTRONICA • Asuntzeria eta mantentze-lan • Instalazioak elektrikoak • Portak, antena, sistema eta abar • Venta, reparazioa TV, AUDIO, VIDEO • Canal Satelite digital Otalora, 14 • Tfno.-Fax: 943 791610	G GARBITZE DENDAKO ELIKADURA BEREZIA Lorazendi 6, Behea • Tf. 943 79 53 61
FLORISTERIA NERIAN LORADENDA Tfno.: 943 79 70 86	Jauregi okindegia Otalora, 10 Tf. 943 79 57 47

WAKE CENTRO COMERCIAL LEZAMA, 14 - arrieginiza - - arriamita - Tfno. 943 770792	IBARRA ESTANKOIA PRENTZA EKASMATERRIALA Bizkaia, 3 • Tf. 943 792377
ASENSIO JANTZIDENDA Mitartea, 12 • Tfno.: 943 79 10 72	Lasai Mozio terapetikoan Polizari adibako eta regulazio diplomazian Lezama merkatal zentrua Santa Kutzta, 24 • Tf. 943 770434
Fruita eta txarkuteria espezialitatea Angelines AUTOZERBITZUA Mitartea, 16 • Tfno.: 943 79 61 42	JOSU Urdaiegia Gocotegia Krosantegia Janari prestatuak Mitartea, 1 • Tf. 943 77 03 08
ARETXABAETA ITURGINTZA Durana, 16 • Tfno.: 943 79 17 53	Larrad Peluqueria y Salos de belleza • EXTENSIONES • MICROPIGMENTACION • DEPILOCACION ELECTRICA Lorazendi, 11 • Tf. 943 799079
PAPERDENDA LIBRERIA LOTERIA IBER Otalora, 2 Tfno.: 943 79 79 24	Etxabe harategia Durana, 4 • Tf. 943 79 16 61
Zubia Oinetakariak Palaik-virupala - gertuek Mitartea, 14 Tfno.: 943 79 16 00	BEGIBO OPTIKA Lorazendi, 10 • Tf. 943 79 98 21
ALDE ARETXABAETA Murubide IFA Murubide, 4 • Tf. 943 79 91 76	Gertu Jabara Ekabako de Salbete Elaborazio y Venta de Comida ESPECIALIDAD EN BACALAO Mitartea, 10 • Tf. 943 770612
MARI KARMEN KONPONKETAK Enrekabarren • Tf. 943 79 59 85	KAURRIK Umeendako moda Lezama merkatal zentrua, 15 Tf. 943 77 14 86
XUME Teladenda Enrekabarren, 14 • Tf. 943 79 11 19	Eruteria Enrekabarren Buitadenda 943 799643
1-10 LORAZENDI, 10 TEL. 943 77 01 26 20550 ARETXABAETA	SENIZ liburuzkandak Herriko Plaza, 10 Tf. 943 79 75 53

Garagartzako jaiak

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

irailak 29, 30 eta urriak 1

Ante
garajea
TXAPA ETA PINTURA KONPONKETAK



Garagartza
auzoa, 9
Tel.: 943 79 82 59



Elizondo
kafetegia



Garagartza auzoa • ARRASATE • TEL.: 943 79 15 99

**Armairuak, hormako armairuak,
ateak, oholtzak, leihoak etab.**



Garagartza auzoa, 5 2º
(Bixiena Baserría) • ARRASATE
Tel.: 943 77 02 43
Mugikorra: 659 77 40 83

Markoalde, 5-7 • BERGARA
Tel.: 943 76 08 10

Belun
KAFETEGIA



Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 61 14

FAGOR
ELEKTRATRESNAK



*San Migel jai zoriontsuak
opa dizkizuegu*

Garagartza auzoa, 39
Tel.: 943 77 92 00

- Ontzi-garbigailuak
- Arropa-garbigailuak
- Egosketa

Garagartzako kontuak ezagutzen

Jaiak dira asteburuan Gara-gartza aldean, San Migelak; auzo hartara gerturatzeko aitzakia ezin hobea, beraz.

Garagartzari buruz berba egiten hasita, nabarmen-tzeko gauza ugari daude auzo hartan, jakina. Baina, bada-goa aipamen berezia merezi duen taldetxo bat, auzoko emakumeena alegia. Izan ere, eta inguruko auzoetan ez bezala, Garagartzan emaku-meak gauzak egiteko biltzen dira. Eta makina bat gauza egiten dituzte, gainera. "Lau urte dela, ni auzoko batzor-deko kide izan nintzen; ego-era aprobetxatuz, emaku-meontzat zerbait egin behar zela erabaki eta Santa Age-dako alkatea (Errukane Ape-rribai) eta biok mugitzen hasi ginen". Halaxe kontatzen digu Isabel Urrutiak, emaku-me taldeko kide batek. "Hasieran Santa Agedan egi-ten genituen ekintzak: sukal-darritza eta eskulanak. Bai-na, han lekurik ez zegoenez, Garagartzara etorri ginen, auzo-etxera". Astean hiru egunetan biltzen dira Gara-

gartzako emakumeak, egu-nean pare bat orduz. Talde bakoitzean 16 bat pertsona daude, 32 urtetik 70 urtera artekoak, eta denetarik egi-ten dute: dantzak, eskulanak eta orratz-lanak.

IHESBIDEA

Baina, ikastaroak egitea bai-no gehiago da Garagartzako emakumeentzako ikastaroe-tan parte hartzea. "Emaku-me askok ia ez genuen elkar ezagutzen. Orain, berriz, sekulako harremanak ditugu. Ikastaroak bukatu eta kafea hartzera joaten gara denak, eta bestela kafea bertan egi-ten dugu. Horrez gain, afa-riak ere egiten ditugu eta baita kanpora irteerak ere.

Etxetik irteteko aukera ematen digute ikastaroek, batez ere emakume nagusiei. Esaten denez, adin jakin bate-ra heltzean depresioak iza-ten dira, ba begira, hemen ez dago horrelakorik!"

Talde berezia, beraz, Garagartzako emakumeek dutena. Ea horrelaxe segitzea lortzen duten; bejondeizue-la!



Begoña Heriz eta Julio Heriz buzkantzagin.

Buzkantzak garagartzera

Garagartzarrek badute goxo-goxo prestatzen duten jaki bat: buzkantzak. Mondrago-etar batek baino gehiagok aprobetxatzen ditu San Mige-lak buzkantza eder horiek probatzeko. Pazientzia apur bat izanez gero, baina, ez dago hara joan beharrik. Begoña Heriz garagartzarraren erre-zetari esker, edozeinek egin ahal izango ditu etxean. Hori bai, ez dira bi pertsona edo laurentzako kantitateak, gehiagorentzat baizik; buz-kantzak egitea ematen duen lana kontuan hartuta, behin hasita hobe da asko egin eta ondoren izozkailuan gorde-tzea, aurrerago jateko.

Hauexek dira behar diren osagaiak:

- 5 litro ardi odol
- 3 kilo ardi gantz
- 9 kilo kipula gorri
- 2 eskukada oregano
- 12 porru
- 12 pipermin
- olioia (kipula eta porruak egosteko beste)
- bola bat heste

Egitekoa: bezperan, kipu-la txiki-txiki egiten da eta olio-tan egosi (litro bat edo gehia-go, behararen arabera). Porru-ekin gauza bera egiten da; bakoitza bere aldetik. Horrez gain, gantza labanarekin zatitu egi-ten da xehe-xehe. Hurrengo egunean, ardiaren odola balde handi batera bota eta beste osa-gai denak zatika botatzen dira. Horrekin egiten da masa, 3-4 bat aldiz. Ondoren, masa hau hesteetan sartzen da eta hes-teak lotu egingo dira; gero, urez betetako kupel han-di batean egosten joaten dira. Oso garrantzitsua da ura irakiteko zorian ego-tea, baina irakin barik, bestela hesteek eztanda egingo bailukete. Ordu-betez tenperatura horretan egosten utzi behar dira. Egositakoan, hozten utzi eta kitto! On egin!



Begoña Heriz

Rosita Uribarren

Kontxita Heriz

Karmen Orobengoa

Trini Barandiaran

Anparo Iria

Rosita Ugarte

Maribi Orobengoa

FUTBOLA Gazteenak, onenak



Lehen erregionaleko Mondraren estreina, ez zen izan Raul Leibak nahiko lukeen bezain ona. Galdu egin zuten mondragoetarrek Euskaldunaren aurka, 3 eta 1. Agian Atxabalpen hobeto arituko dira, izan ere, denboraldi honetan etxean jokatuko dute lehenengo partida, Zarauzko Antonianoren aurka, larunbatean, 17:00etan. Etxean jokatu dute baita ere bigarren urteko gazteek. Aurrekoan 2 eta 3 irabazi zieten Eibartarrak taldekoei; igandean, 12:30ean, Eibarko Gazteak-en aurka jokatu dute. Lehen erregionaleko neskek, bestalde, 1 eta 2 galdu zuten Atxabalpen. Denboraldiko bigarren neurketa izan

zen; hirugarrena, Almenen aurka izango dute, larunbatean.

Infantilek ere etxean jokatu dute, larunbatean, 11:30ean, Hernariren aurka.

SASKIBALOIA Lehenengoan kale



Kenci Arrasate saskibaloitako taldeko nagusiek joan den asteburuan hasi zuten denboraldia, baina ez modu onean. Galdu egin zuten Faturan, 89 eta 82.

Azkenengo minutura arte berdinduta joan ziren bi taldeak eta azkenean ezin izan zuten aurre hartu.

Lehen partidetan agertzen diren nekeak akats inozoak eragin zituen eta erritmo falta ere nabaritu zen. Horrez gain,

ofizialki estreinatu ziren saskibaloiko lege berriak: partida 10 minutuko lau laurdentan banatzen da eta erasoak 24 segundo baino gehiago ezin du iraun. Lege hauen asmoa, partiden erritmoa bizitzea da.

Hori horrela den ikusteko aukera izango dugu gaur bertan, Iturripen. Izan ere, 20:00etan jokatu dute mondragoetarrek etxean, Leioako Askartza taldearen aurka.

EHIZA- ARRANTZA Txoriak botatzen onenak



Asteburuan Leintze Ehiza eta Arrantzak elkarteko kideak Santa Cruz de Fierron aritu ziren txapelketan. Beroa izan zuten

lagun txapelketa osoan zehar (goizeko 10etarako 25 gradu omen zeuden). Lau orduz txori gehien nork harrapatu aritu ziren 32 kide eta azkenean lehen sailkatua Karlos Gamuza izan zen Frantzisko Sevilanorekin puntuka berdinduta (608 puntu). Hirugarren Jose Manuel Lopez izan zen, 604 punturekin. 60 urtetik gorakoen mailan, Heriberto Altuna nagusitu zen. Urriaren lehen zonaldeko kanporaketa jokatu dute leku berean eta lehenengo hirurak Gipuzkoako Txapelketarako sailkatu dira.

Bestalde, uda aurretik jokatutako arrantza txapelketako saria ere joan den asteburuan eman zuten. Irabazlea Asier Abasolo izan zen. Ramon Ramila hirugarren sailkatu zen eta biak Gipuzkoako Txapelketarako sailkatu dira.

Denboraldia amaitu da txirrindulariendako

San Migeletako txirrindulari lasterketa jokatu zen joan den igandean, Aretxabaletan. Fagor taldeko gazteentzat denboraldiko azkenengo lasterketa izan zen.

Bi proba jokatu ziren: goizean 60 km.ko ibilbidea, hiru mendaterekin: Epele, Untzilla eta Mendiola. Arratsaldean, berriz, goizeko eta aurreko eguneko Urnietako probako denborarekin batez bestea gainditzen zuten lehenengo 21 txirrindulariendako erlojupeko proba.

Fagortaldetik, Eneko Garcia, Jon Odriozola, Aitor Fru-



San Migeletako lasterketan izan ziren asteburuan.

tos eta Josu Beitia aritu ziren. Lehenengo biek ez zuten proba amaitu, Eneko kanporatu egin zutelako eta Odriozola

Untzilla jaisten jausi egin zelako. Kontuak kontu, lehenengo hogeita bat txirrindulariak sailkatzen zirenez, Frutosek eta

Beitiak ere ezin izan zuten erlojupekoan parte hartu. 10 kilometroko erlojupeko kontrako horretan Jesus Manuel Chamorrok egin zuen denborarik onena, Muebles Ordiziako txirrindulariak.

Goizeko lasterketari dagokionez, oso lasterketa gogorra izan zen hasieratik eta txirrindulariak sakabanatuta sartu ziren helmugan. Joseba Zumeta izan zen gazte mailako txirrindulari onena eta berriz jarri zioten horren adierazgarri zen elastikoa; Gipuzkoako txirrindulari federazioko presidente ordeak jarri zion.

**OSORIK
PUB**
Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

**MARKO-JARTZEAK
ALDEDI**
Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84

LEKIN
Ile apaindegia
Maritxutarako prezio bereziak
Makilatu eta orraztu 3.000 pta.
Erguin, 15. Behea
Tel.: 943 79 80 23

Euskal Herriko motokros txapelketa, Musakolan



15:00etan entrenamendua eta 16:00etan lasterketa izango dira, Mojategin.

Igandean, III. Motokros Txapelketa jokatu da Mojategiko zelaian. Euskal Herriko motokros txapelketarako baliagarria izango da proba hau. 15:00etan izango dira entrenamenduak eta txapelketa 16:00etan hasiko da.

Iaz, Joseba Alvarez ber-

gararrak irabazi zuen Arrasateko Motorzale Elkartek antolatutako txapelketa. 250 cc. tan hartu zuen parte berak. 29 lagunek eman zuten izena eta tartean Arrasateko Motorzale Elkarteko bi kide aritu ziren. Aurten, berriz, 40 lagunetik gora eman dute izena, Araba-

ko 22, Gipuzkoako 24 eta Bizkaiko 5. Antolatzaileek adierazi digutenez, "Nafarroa, Burgos eta Santanderetik ere bana arituko dira, seguru asko". Arrasateko Motorzale Elkartetik 30 bat lagunek hartuko dute parte, eta tartean bi arrasatear arituko dira: Pako Car-

mona (125 cc.) eta Jose Angel Zuriarran Atxa (250 cc.).

PROBAK

Entrenamendua 15:00etan hasiko da eta bi saiotan egingo da: lehenengoan, 125 eta 250 cc. ko partaideak arituko dira eta ondoren 500 cc. koak. 60 eta 80 cc. koak ere, akaso, parte hartu ahal izango dute, baina aparte arituko dira. Entrenamenduek erabakiko dute lasterketako irteera zein postutan hartuko duten: lekuak aukeratzeko lehenetsuna emango die.

Lasterketa 16:00etan hasiko da eta ibilbidea iazko berbera izango da edo "oso antzekoa; ia kilometro batekoa".

Motokros Federaziokoak izango dira lasterketaren zuzendariak.

Parte hartzaileek 2 saio egingo dituzte, eta saio bakoitzeko puntuak hartuko dira kontuan sailkapen orokorre-rako.

Txapelketarako sarrera 500 pezeta kostako da.

Denboraldia prestatzen

Arrasateko Errugbi Taldea hasi da denboraldia prestatzen. Laurogei jokalaririk inguru arituko dira gutxi barru hasiko den denboraldian, senior, gazte eta kadete mailetan.

Seniorrak euskadiko ligan izango ditugu. Bi urte daromatxate maila horretan eta bietan bigarren tokian bukatu dute. Aurten, berriz, lehenengo tokia lortzea izango da euren helburu nagusia. Hala izanez gero, datorren urtean nazioarteko mailan jokatuko lukete.

Gazteek eta kadeteek, bestalde, Gipuzkoako Ligan jokatu dute. Oraindik, dena dela,

zehaztu barik daukate egutegia, baina aurreko urteetakoak betez gero, urrian jarri daitezke abian. Gipuzkoako ligako norgehiagokak amaitzen direnean, Euskaldiko Ligari egin beharko diote aurre.

Arrasateko Errugbi Taldeko arduradunek hiru talde horiek aurrera ateratzeko nahi baino arazo gehiago dituzte. Gazte mailetan jokalaririk behar dituzte; errugbia hobeto ezagutu nahi baduzue, eta kirola eginez primeran pasatu, errugbi taldeko ateak zabalik dituzuela. Musakolako kiroldegian asteartero eta ostegunero, 19:00etan.

Arrasateko kirolariak Espainiako Txapelketara

Arrasate Kirolak Atletiko Taldeko bi kirolari arituko dira Santanderren Espainiako txapelketan. Jonathan Perez pertika jauzilaria batetik, eta Naia Sarabia korrikalaria, bestetik.

Santanderko La Alberician jokatu da Espainiako junior mailako txapelketa hori.

Gipuzkoako jauzilarien txapelketa jokatu zuen Jonathanek asteon; aurreneko sailkapenean 4,20 metroko jauzia egin zuen eta lehenengo gelditu zen. Joan den martitzenean, beste jauzialdi bat egon zen Anoetan. Han, ordea,

Jonathanek 4 metroko jauzia-rekin konformatu behar izan zuen. Hala ere, konfiantzaz abiatuko da Santanderrera; izan ere, denboraldi honetan, 4,50 eta 4,60ko jauziak ere egin izan ditu. Oraintxe lortu du pertikara egokitzea, aurretik bi apurto ditu eta.

Unai Sarabiak 200 m. ko lasterketa jokatu du. Berak 22 segundo eta 57 ehuneko denbora egin zuen. Bere markarik onena 22"82koa da, beraz ez du zailtasunik izango gutxieneko denbora gainditzeko (22"70ekoa).

Arrasatearrak Donostiako Zinemaldian

Lehiaketatik kanpo bada ere, herriko ordezkari izan dugu Donostiako Zinemaldian. Euskal Zinemaren Eguna izan zen eguaztenean, eta arrasatearren eta gertuko en parte hartzeaz egindako bi film labur eta telefilm bat erakutsi ziren. *Illarri* film laburrean hiru arrasatearrek hartu dute parte: Manu Gomezek, zuzendari moduan, eta Maider Eguesek eta bere amak, protagonista moduan.

Eta arrasatearra ez, baina herriarekin lotura estu-estua duen Aitziber Aranburuzabala, Arrasate Irratiko esataria, Donostian erakutsitako beste bi filmetan parte hartutakoa dugu. Batetik, Urnietako Sarobe zinema aretoko ikasturte amaierako proiektu bat, *Hego haizea, ero haizea*.

TELEFILMA

Harigile eta soinu teknikari lanetan jardun zuen Aitziberrek, eta dekoratuaren arduradun moduan, berriz, Pausokak eta ETBk ekoiztutako *Clara* telefilmear. Jon Andueza mondragoetarra zuzendari laguntzailea izan zen film horretan.



Lehen mailako ahotsak Amaian



Musika emanaldiak hartzeko egoitza paregabea dago Arrasaten.

Nafarroan jokatu den VIII. *Julian Gayarre Nazioarteko Kantu Txapelketako* bost irabazleek, *Pablo Sarasate orkestrak* babesturik, emanaldi bat eskainiko dute egubakoitz honetan Amaia Antzokian, 20:00etan. Sarrera txartelak 1.000 pezetan salduko dira, 18:00etatik aurrera, Amaia lehiatilan; alde aurretik, Arrasate Musikaleko bazkideek 700 pezetan izango dituzte eskuragai. Hauek izango dira punta-puntako ahots horiek: Carlos Almaguer mexikarra eta Caterina Costea errumaniarra txapeldunak, Besik

Gabritashvili georgiarra, Vardui Khachatryan armeniarra, eta Hyun-Jae Park korearra.

SARIA

Julian Gayarre lirika lehiaketako irabazleentzat sari bezala antolatu du Nafarroako Gobernuak kontzertu sorta bat. Horietatik bi Nafarroan izango dira, eta azkena, Mondragoen. Bere musika tradizioarengatik eta egoitza aproposa izateagatik aukeratu da Arrasate.

Lehiaketako finaleko obra berberak jokatuko dituzte: euren aukerako bi aria eta bi

obertura, guztiak ere konposatzaile entzutetsuenak:

G. Rossini: *El Barbero de Sevilla* eta *La Gazza Ladra*.

J. Massenet: *Werther*.

G. Bizet: *Carmen*.

G. Verdi: *Il Trovatore*, *Macbeth* eta *La Forza del Destino*.

G. Puccini: *Turandot*.

U. Giordano: *Andrea Chenier*.

G. Donizetti: *Lucie Di Lammermoor*.

P. Mascagni: *Cavalleria Rusticana*.

Oilloke Xoua, Kilometroak-en

Igande honetako Kilometroak eguneko parte hartzaileek alai-alai ibiltzen lagunduko dieten ikuskizun bat izango dute: Txatxilipurdiren Oilloke Xoua.

Azpeitiko Ikasberri ikastolak, aurtengo antolatzaileak, Txatxilipurdi eta bere oilo lagunak gonbidatu ditu. 14:30etik aurrera, Xoxote Gunean, oilo paregabe horiekin kantari eta dantzari ibil-



tzeko aukera izango dute parte hartzaileek. Horrez

gain, tailerretan ere ibiliko dira Txatxiliko lagunak.

UNAI BUSTURIA ETA JULEN RIBAS (KOMIKI EZ SEXISTEN LEHIAKETAN SARITUAK)

“Komikia egitean, istorioa asmatzea da zailena”

III. Komiki Ez Sexisten Lehiaketan bi arrasatear izan ditugu saridun: Unai Busturiak, 25 urtekoa, lehen saria irabazi du, eta Julen Ribasek, 19koa, Gazte Saria. Euren lanak, parte hartu duten beste 24 lanekin batera, Monterronen daude ikusgai. Sari banaketa hilaren 26an egin zen, eta hauetaz gain, ondokoak izan ziren sarituak: berdintasuna hobeto lantzen duena eta euskara saria: Maider Kalonge (Nafarroa); emakume egilearentzat saria: Ana Rosa Rodriguez (Bizkaia).

—Komikizaleak zarete?

—Unai: Bai, betidanik gustatu izan zait izugarri komiki mundua, bai irakurle, bai eta egile moduan ere. Hala ere, komiki hau izan da inoiz egin dudana lehena.

—Julen: Asterix eta Obelix eta antzekoak baino ez nituen ezagutzen; ez, ez naiz oso zalea. Marraztea eta margotzea, ordea, oso gustuko dut.

—Zertaz dira zuen komiki sarituak?

—U.: Guztiak berdina garen arren, desberdintasuna sustatzen deneko metafora bat egin nahi izan dut. Askatasunean hezi beharko litzatekeela jendea, horixe da nire mezua.

—J.: Gizon eta emakumeon arteko elkarlanak dituen abantailak erakutsi nahi izan dut neuk komiki honekin. Gauzak hobeto joango litzatekeela adierazi nahi nuen.

—Zail egin zitzaizuen komikia egitea?

—U.: Lehenengo, zer esan asmatu behar duzu, eta ondoren, nola. Gaia



argi zegoen, baina istorioa asmatzea izan zen niretzat gaitzena. Ondoren, arkatzez eta gero tintaz marraztu nuen. Orrialdeko, egun bana eman nuen.

—J.: Niri ere, istorioa lotzea iruditu zitzaidan zailena; gainontzekoa errazago egin zitzaidan. Astebete eman nuen lau orriko komikia egiten.

—Nola ikusten duzue komikigintza?

—U.: Euskal Herrian eta Espainian, oso gaizki ordainduak daude komikigileak. Estatu Batuetakoa, Frantziakoa edo Japoniakoa dira munduko merkatu indartsuenak. Nik neuk ez dut ahalegin berezirik egin Euskal Herrian tarte bat zabaltzeko. Egiten den gehiena erakundeentzako da.

—J.: Hemen ez dago batere komiki zaletasunik, eta Espainian ere ez. Komikitik bizi nahi duenak Frantziara edo Estatu Batuetara joan beharra du. Hemen, komikigintzak ez du inongo irtenbiderik.

—Gaira joz, aukera berdintasunaren alde zer egin daitekeela uste duzue?

—U.: Arlo guztietan ekin behar zaio, nor bere familatik hasita, lanera, kalera...

Nik neuk, etxean, berdintasun egoera bizi izan dut.

—J.: Egoera kulturala denez, oso zaila da horri aurre egitea. Akaso, lan mundua da erronkarik handiena, hor gertatzen baitira desberdintasunik latzenak. Kalean, aldiz, egoera hobea dela deritzot.

“Aukera berdintasunean, lan mundua da erronkarik handiena”

asteburuan zer

kontzertuak

KIKO VENENO JAMEN

Datorren zapatuan, Bergarako Jam aretoak bere laugarren urteurrena beteko du. Hori dela eta, luxuzko musikari baten talentuarekin gozatzeko aukera paregabea izango dugu. Kiko Veneno da musikari hori.

Gaur egun, pop-rock eta flamenkar doinuaren nahasketa egunerokoa iruditzen zaigu, baina 70. hamarkadaren amaieran, erruki musua eta bi bizkarrekorekin botatzen zituzten diskoetxeek bulegoetatik, era horretako musika jorratzen zutenak. Konposatzaile eta abeslari honek ipini zituen gaur egun boladan dagoen erritmo nahasketa horren oinarriak, Veneno bere taldearekin.

Veneno eratu orduko, bazuen Kiko Venenok nahikoa eskarmentu, Raimundo Amador bere lagun minarekin *Patapalo* bezalako abesti gogoangarriak eginak baitzituen.

ARRAKASTA BERANTIARRA

Urte asko pasa behar izan ziren -20 bat, jendearen onespina jaso zuen arte. *Echate un Cantecito* diskoa musika altxorrez barra-barra zetorren -*Joselito, Reiry Llorar, Lobo Lopez...*- eta ondoren, *Está muy bien eso del cariño* ezagun baino ezagunagoa. Lagunak ere, punta-punta-koak ditu Kikok: Andres Calamaro, Juan Perro, Albert Pla... eta horien ikutu pertsonala ere sumatzen da Kikoren musikan. Joan eta gozatu, Jamen, 22:00etan.



Kiko Venenok bere azken lana aurkeztuko du Arde Asia taldearekin batera. Sarrera aurrez, 2.300 pezeta izango da eta bertan, 2.500.

irakurle eta entzule

Iturria: Eya

diskoak

KETAMA

¡Toma Ketama! Mercury. 2.890 pta.



Flamenkoa edo saltsa moduan izendatu izan da sarritan Ketamaren musika. Baina, ez da horietako bat ere disko honetan dator-

kiguna, pop estiloa baizik. Pop solidoa, dantzakorra, xaloe, baina era berean, kontzientziar landua; doinu jostalariak mezu mardulekin batera.

Bere abestietako edozeinetan murgiltzea eskatzen du disko honek: pop musika, bai, eta oso aberatsa gainera, Caetano Veloso brasildarraren ahotsaz babes-tua.

Erritmoak eta istorioak aukeran ditugu: pasioa (Mienteme), gogoeta (Soledad), andaluziar rocka (Trianaren El Lago), eta gaur eguntasun amorratu horren aurkako eztenkadak (Paren el Mundo, Ke no).

liburuak

PUTZ,

5. zenbakia



Puntual-puntual, udazkenarekin batera datorkigu Putz aldizkari protestazale eta kritikazalea, baina hori bai, eguneroko jasan eta ikusi behar dugun tentsiozko egoeraren

aurrean, ihesbide moduan barrea susper-tu nahi duen alternatiba. Oraingoan, Sydneyko Olinpiar Jokoak -azalean, euren beste aurpegia agerian-, Miguel Sanz Nafarroako lehendakaria, eta ikastolekin historia ikasgaia dela eta izan den istilua, besteak beste, aukeratu dituzte euren kontura barre apur bat egiteko; pixka bat serioago -baina ez larregi ere-, 80. hamarkada gogoratuko dugu Pablo Cabezari egindako elkarrizketa mamitsu bati esker; eta, betiko moduan, literaturari eta giza gastronomiari tarte zabala eskaintzen zaie.

asteko filma



60 Segundos

(Gone in 60 Seconds). EEBB, 2000. Akzioa. **Zuzendaria:** Dominic Sena. **Aktoreak:** Nicolas Cage, Angelina Jolie. **Kalifikazioa:** 13 urtetik aurrerakoentzat.

HARIA

Herritar zintzo bezala bizimodu berriari ekin dio Memphis Raines auto lapur ohiak. Baina, bere anaia Kip ere lapurretan ibili da, eta Calitri izeneko tipo batek 50 auto lapurtzeko agindu dio, hil egingo duen mehatxupean. Nola ez, anaiari laguntzera joango da Memphis...

KRITIKA

Udan ondo pasatzeko film horietako bat bezala pentsatua dago *60 Segundos*, *La Roca* edo *Armageddon* ekoiztu zituen

Jerry Bruckheimerren eskutik. Beraz, film entretenigarri haien patroï berberetik eginda dago hauxe, baina emaitzek zalantza gehiago pizten dute.

Akzioa barra-barra, ondo lortutako gag bat edo beste, aktore bikainak eta ikusgarriak eta gogoan hartzeko moduko 50. autoaren lapurketa, alde onean; hari ahula -ahulegia, alde txarrean. Izan ere, ikusi beharrekoa ez omen da nahi beste ikusten.

Zuk zeuk erabaki zeini eman pisu handien.



G A Z T E E N D A K O L O G E L A K

Euren erar@ nabiga ahal dezaten



Ikasi, jolastu, amets egin, sarean zehar nabigatu... nork aipatu du lo egitea?

TodoMueble KABIAre zure seme-alabek goitik behera gozatuko duten logela aurkituko duzu. Aholkularitza profesionala eta ordaintzeko erraztasun ezin hobeak izango dituzu:

- 6 hilabetetan ordaintzeko aukera, guztia ordaintzeak ekartzen duen deskontuarekin.
- 24 hilabetetan ordaintzeko aukera, interesik gabe eta 6. hiletik aurrera hasita.

Zatoz *TodoMueble* KABIAra. Izugarri gozatuko duzu.

Ordutegia: 09:30-13:00 / 16:00-20:00 Zapatuak barne.



Gipuzkoa Etorbidea, 28
Tel.: 943 79 27 70 ARRASATE

Goitb

Goiena Telebista

ASTELEHENA, 2

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatzza.**
Bailarako sukaldariekin.
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 Goienasport.
- 22:00 Gatza eta Berakatzza.
- 22:15 **San Migel jaiak, Aretxabaletan.** Kepa Errasti eta Iraia Aginagalderekin.

ASTEARTEA, 3

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatzza.**
- 13:55 **Goienasport** (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **San Migel jaiak,**
Aretxabaletan (errepika).
- 22:00 **Gatza eta Berakatzza.**

ASTEAZKENA, 4

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatzza.**
- 13:55 **San Migel jaiak,**
Aretxabaletan (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Aurrez aurre** (Rosa Mondragonek aurkeztuta; gonbidatua Mariano Errasti aramaioarra).
- 22:00 **Gatza eta Berakatzza.**



R. Mondragon eta Mariano Errasti.

OSTEGUNA, 5

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatzza.**
- 13:55 **Aurrez aurre** (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Hamaika Magazin**
Amagoia Lasagabasterrek aurkeztuko du saioa denboraldi honetan.



Amagoia Lasagabaster.

- 22:00 **Gatza eta Berakatzza.**
- 22:15 **Soinuz Blai**
(Miren Gonzalezek).

OSTIRALA, 6

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatzza.**
- 13:55 **Hamaika Magazin**
(errepika).
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Maritxu Kajoi mirariak.**
1991. urtetik 1999ra bitarteko bideo bilduma eskainiko da.

LARUNBATA, 7

- 13:30 Asteko saioen errepika.
Gatza eta Berakatzza,
Aurrez aurre, Hamaika
Magazin, Soinuz Blai,
San Migel jaiak
Aretxabaletan eta
Maritxu Kajoi 2000,
programa berezia.

IGANDEA, 8

- 13:30 Asteko saioen errepika.
Gatza eta Berakatzza,
Aurrez aurre, Hamaika
Magazin, Soinuz Blai,
San Migel jaiak
Aretxabaletan eta
Maritxu Kajoi 2000,
programa berezia.



Eva eta David Romero.

Gatza eta Berakatzza



Ikasturte honetan ere sukaldari trebeak izango ditugu Gatza eta Berakatzza saioan. Gure lehenengo sukaldaria Bergarako Aintzane Rementeria "Agirrebeña" jatetxekoa izango da.

Datorren astean

NOIZ	PLATERA
Astelehena 2	Entrekota bi saltsarekin.
Astearte 3	Jogourt tarta.
Asteazkena 4	Azpizuna piperbeltz saltsarekin.
Osteguna 5	Marmitakoa.
Ostirala 6	Porruak ozpin saltsarekin.

Andoni Urtzelai, GOITBko zuzendari


Urriaren 1etik aurrera, Andoni Urtzelai atxalbaltarra izango da Goiena Telebistako zuzendaria.

Ezaguna da Andoni etxe honetan. Izan ere, Arrasate Telebistako lehen lan taldekide izan zen, Andoaingo Eskolan ikasketak amaitu eta gero. Teknikari moduan aritu zen orduan eta, sasoi batez, baita zuzendari legez ere.

Harrezkero, ibilbide luzea egin du hemen-dik kanpo: Baleuko produktoran ibili zen, baita Ihardun Multimedian ere. Azken lanak Asegarce etxean egin ditu. Denbora luzez bera izan da, adibidez, Karlos Argiñanoren programako errealizatzailea.

Idazte ere gustuko du Andonik. Hemen-txe bertan, sasoi batean Telebegi izeneko zutabea idazten zuen telebistaren inguruan. Orain, bestalde, liburu bat prestatzen ari da.

Gogotsu dator GOITBra: "eskualdera zabaltzea erronka berri bat denez, ilusioa jarriko diogu eta aurrera". Gertutik ezagutzen ditu



herri telebistak, bera ere horietako batean hasi baitzen, eta argi du zein den hauen indargunea: "gertutasuna".

Betiko moduan, erronkari aurre egiteko prest. Ongi etorri, Andoni!



ASTELEHENETIK OSTIRALERA

- 09:00 **Egunon Arrasate**, albistegia Alazne Ostolazarekin.
- 09:30 **Prentsaren errepasoa**.
- 09:55 **Eguneko hitzorduak**.
- 10:00 **Igo autobusera**, Lehenego ibilbidea Aitziber Aranburuzabalarekin.
- 11:00 **Albistegia**.
- 11:15 **Igo autobusera**, Bigarren ibilbidea.
- 12:30 **Agenda, oharrak, eskelak...**
- 12:45 **Albistegi nagusia**.
- 14:00-18:00 **Errepika**.

Areto dantzen ikastaroa urte osoan zehar!



- Hasiera: urriak 7
- Eguna: larunbatak
- Ordutegia:
Goizez: 11:30-13:00
Arratsaldez: 15:45-17:15
- Irakasleak: Natalio eta Marian
- Prezioa: 4.500 pta hileko



Bixente Ferrer, 1 • ARRASATE • 943 79 52 17

- Balsa
- Tangoa
- Rock & Roll-a
- Pasodoblea
- Boleroa
- Cha cha cha
- Fox-trota
- Saltsa
- Rueda cubana
- Merengea
- Bachata



ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Sierra Morenan (Jaen) 240 m²-ko etxea salgai, 15.000 m²-ko lur sailarekin. Putzua, garajea eta igerilekua dauka. Arrantzarako eta ehizarako inguru aproposan kokatua. Prezio oso interesgarria. Tel.: 606 69 32 87. Antonia.

• Erdialdean pisu berria alokagai: 3 gela, egongela, 2 komun, sukaldaria eta trastelekua. Tel.: 656 78 69 49.

• Etxea salgai makatzenen. 70m². Tel.: 943 79 77 03..

• Arronizen (Nafarroa) pisua salgai. Lizarratik 15 km.ra. Berria, 90 m² eta 40m²ko etxabea. Prezio ona. Tel.: 94 143 10 19.

• Pisua salgai Aretxabaletan. 90 m², sukaldaria, egongela, hiru logela, trastelekua, bainugela eta sotoa. Tel.: 943 77 13 02.

• Pisua salgai Begoñan. 3 logela, egongela, sukaldaria, bainugela, terraza handia, berogailua. Tel.: 646 30 53 49 / 636 79 47 61.

3. Errentan emateko

• Komuna duen logela bat alokagai Oñatin, sukaldaria eta egongela erabiltzeko eskubidearekin. Tel.: 943 78 28 62.

• Pisua alokagai kale aldean. Tel.: 943 79 90 41.

• Pisua alokagai Aretxabaletan. Tel.: 943 79 32 73 / 943 32 25 69.

• Etxebizitza alokagai San Andresen. Eskola Politeknikotik gertu. Tel.: 943 79 41 10 (Josefina).

4. Errentan hartzeko

• Etxebizitza bat behar dut Aretxabaleta eta Eskoriatza artean. Konpartitua. Tel.: 686 95 56 97.

• Aretxabaleta edo Eskoriatza pisu bila nabil. Besteekin banatzeko. Tel.: 686 95 56 97.

• Ikasle bat Arrasaten pisu bila. Tel.: 948 46 73 66 eta 945 46 71 24.

• Pisua behar dugu Aramaio, Aretxabaleta edo Eskoriatza inguruan. Tel.: 629 92 48 82.

5. Etxeak osatzeko

• Logela bat hartuko nuke etxea osatzeko. tel.: 94 444 53 13.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu


24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohaineakoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

• Neskak behar dira Aretxabaletako etxebizitza bat osatzeko. Tel.: 943 79 78 35 edo 627 64 27 13.

• Lagun bat bilatzen nabil etxebizitza bat betetzeko. Tel.: 943 77 13 20.

• Neska bat behar dugu Sarriko pisua osatzeko. Tel.: 943 79 48 53 edo 696 86 40 48.

• Neska batek gela bat alokatu nahi du. Tel.: 94 440 58 78 edo 696 88 26 65.

• Neska bat behar da Donostian, Amaran, ikasleen pisu bat osatzeko. Tel.: 943 47 32 67.

• Lagun bat behar dut Arrasaten pisua osatzeko. Tel.: 943 77 13 20 (gauze).

GARAJEAK

7. Saldu

• Txindoki dorrean garajea salgai, goiko solairuan. Tel.: 943 79 24 10.

9. Errentan emateko

• Garajea alokagai Uarkapen. Tel.: 943 79 84 35. Goizez edo gauzez deitu.

• Arimazubi plazan garaje itxia saltzen dut. Tel.: 943 79 18 13.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• Lokala salgai Zarugalde kaleko 6. zenbakian. 60m² eta 22m²ko patioa. Tel.: 606 76 50 22.

14. Errentan emateko

• Bi gela alokagai irakaskuntza edo bulego lanetarako. Tel.: 943 79 18 70.

• Bi lokal alokagai Aretxabaletako Errekabarren kalean. 34m² eta 36m² takoak. Tel.: 943 79 20 48 / 943 77 14 11.

LANA

17. Eskaintza

• Klinika laguntzailea, geriatrian espezializatua, gaixoak eta nagusiak zaintzeko prest. Tel.: 609 77 01 33.

• Esperientziadun emakumea, pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tel.: 943 79 68 77. 12:30etik aurrera.

• Neska prest emagel zaindu edo denda batean lan egiteko. Tel.: 943 79 69 66. Ainhoa.

• Emakumea prest orduka lan egiteko. Tel.: 626 626 167.

• Neska prest arratsaldez umeak

zaintzeko edo orduka lan egiteko. Tel.: 943 71 53 74.

• Emakumea prest umeak edo nagusiak zaindu edo etxeko lanak eta garbiketarako egiteko. Tel.: 653 72 30 21.

18. Eskaerak

• Jostuna behar dugu. Tel.: 943 79 89 32.

• Taberna sukaldari lanak egiteko pertsona bat behar da. Tel.: 686 70 31 65.

• Zerbitzari bat behar da Gatzaga Gainen. Tel.: 943 71 55 22. Mari Karmen.

• Ile apaintzaile bat behar da. Tel.: 943 79 49 72.

• Taberna baterako zerbitzaria behar da. Tel.: 943 77 17 97 edo 943 79 38 93.

• Pertsona bat behar da umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 91 64. 10:00-13:00, 17:00-20:00.

• Pertsona bat behar da etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Tel.: 943 79 93 89. 20:00 etatik aurrera.

• Komertzialak behar dira Arrasate ingururako. Tel.: 943 21 42 28. 9:00-13:00.

• Zerbitzariak behar dira. Tel.: 945 44 50 86.

• Taberna baterako sukaldari lanak egiteko pertsona bat behar da. Tel.: 686 70 31 65.

• 18 eta 35 urte bitarteko jendea behar da hipermerkatuetan produktua kokatzeko. Interesatuok curriculum bidali ondoko helbidea: Marketing aplicado, Avenida Madrid 121, 3C, 50.010 Zaragoza. Tel.: 976 34 63 61.

• Taberna lan egiteko neska bat behar da. Tel.: 943 79 74 09.

• Neska bat behar da sukaldaria edo beste bat barrarako. Tel.: 943 79 00 34.

• Esperientziadun ile apaintzaile profesionala behar da. Ikaslerik ez. Tel.: 943 77 13 03 (21:00etik aurrera).

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Matematikako eskolak ematen ditut UBIra arte. Tel.: 943 79 39 23. 18:00etik aurrera.

• Ingelesko eskolak ematen ditut.

Talde mugatuak, egun osoan. Tel.: 943 79 18 70.

• Profesionalak prest laguntza eskolak emateko. Tel.: 649 22 51 07.

• Eskola partikularrak ematen dira talde murriztuetan: idazketa-irakurketa, euskara errefortzua eta etxerako lanetan laguntza. LH 1.-6. maila bitartean. Tel.: 619 35 48 44.

21. Eskaerak

• Alemana irakasteko pertsona behar da (irakasle bat behar da). Tel.: 943 79 38 16. Idoia.

• Batxilergoko ikasle bati matematika, fisika eta kimikako eskolak emateko irakaslea behar da. Tel.: 943 79 28 79. Deitu 19:00etatik 21:00etara. Mertxe.

MOTORRA

23. Saldu

• Kawasaki Volcan 800 motorra salgai. 900.000 pta. Tel.: 943 77 08 69.

• Ford Orion SS - W autoa salgai. Egoera onean. 125.000 pta. Tel.: 943 79 78 98.

• Ford Courier Combi furgoneta salgai. 1.800 Diesela. Egoera ona. Tel.: 943 71 46 79 eta 630 60 90 53.

• Ford Fiesta bat salgai. SS - Z. Oso egoera onean, garajejan gordetako. Tel.: 943 79 58 29.

• Opel Corsa autoa salgai. SS - BB, 15.000 km. berri-berria. Tel.: 943 79 27 30.

• Opel Kadett 1.4 autoa salgai. SS - AL. Tel.: 667 08 84 84 (Iker).

DENETARIK

26. Saldu

• Etxeko altzariak salgai. Berriak dira. Oso merke. Tel.: 943 79 38 16. Idoia

• Bosch markako arropa lehortzailea salgai. Oso gutxi erabilia. Prezio erdira. Tel.: 943 79 25 15.

• Husky txakur kumea salgai. Tel.: 627 41 77 59.

• Cocker eta Boxer txakur kumeak salgai. Pedigridunak. Tel.: 696 05 73 46.

• Teklatua salgai, Yamaha ESR-48 modelokoa. Tel.: 943 79 27 65.

• Akordeoia salgai. Tel.: 630 24 52 14.

31. Galdu

• Angora arrazako katu bat galdu zen hilak 7an, ostegunean, Arrasaten. Marroi-zuri kolorekoa eta nahiko handia. Tifus izena dauka. Tel.: 943 79 36 82.

• Frantseseko liburua galdu dut: "Le Nouveau Sans Frontieres Perfectionnement" izenburuduna. Tel.: 943 79 69 68 (Izaskun).

HARREMANAK

36. Harremanak

• Arrasaten bizi naiz eta ingelesez (amerikeraz) ondo dakidan mutila naiz. Frantsesez ondo dakien neska baten bila nabil bere ingeleza eta nire frantsesa hobetzeko. Deitu 619 072 900 telefonora.

ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA

2000rako Enplegu Publikoaren Eskaintzaren arabera, Arrasateko Udalak funtzionarioen lanpostu hauek hornitu behar ditu:

a) Sarbide Irekia:

- 1, Administrazio Orokorreko Teknikaria
- 1, Ingurugiro Teknikaria
- 1, Emakumea - Aukera Berdintasunerako Agentea
- 1, Ingurugiro Eskolako Irakaslea
- 1, Liburuzaina
- 1, Zerbitzuetako Ikuskatzailea
- 1, Gazte Informatzailea
- 1, Elektrizista
- 5, Udaltzainak
- 1, Administrari laguntzailea
- 2, Ekintza kulturalerako eta anitzetako operarioak
- 1, Zerbitzu anitzetako operaria (peoia)

b) Elbarrieci erreserbatuta:

- 1, Administrari laguntzailea (egun erdiz)
- 1, Ordenantza

Oinarriak udaltxean ikus edo/eta jaso daitezke. Hautaketa prozesuetan parte hartzeko eskabideak epe honen barruan aurkeztu behar dira: irailak 23 / urriak 13 (arratsaldeko ordu biak arte)



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila ■

LAN ESKAINTZAK

2 ADMINISTRARI LAGUNTZAILE

Arrasateko Udalak, 2 administrari laguntzaile aldi baterako kontratatu nahi ditu.

- 1) 5 urteko kontratua, egun zatiz (lan jardunaren %77)
- 2) 5 hilabeteko kontratua, amatasun baja bat del eta.

Aurkezpen epea: 2000/9/26tik 2000/10/13rarte, biak barne. Oinarriak: Udaltxean jaso daitezke.



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila ■



DEBAGOIENEO
MANKOMUNITATEA

LAN ESKAINTZA

DIRUZAINNTZA ETA KONTABILITATE

orokorreko lanak egiteko

Ekonomi eta Enpresa Zientzietan
diplomadun bat kontratatu behar da
behin-behinerako.

Instantziak eta dokumentazio osagarria urriaren 4aren
arratsaldeko 15:00ak baino lehen Debagoieneko
Mankomunitatean aurkeztu beharko dira.

Arrasate Pasealekua, 5 behea. ARRASATE. • Tel.: 943 79 33 89 / 99

... LILURAK ...
OIHALAK

Denboraz prestatu
Maritxurako jantzia

Zerkaosteta, 5 - Behea • ARRASATE • Tel.: 943 - 79 89 72



Garagartzako jaiei bisitaegin-go diegu aste honetako argazki zahar-reen; 1955-60. urte inguruko jaiei, hain zuzen ere. Auzoko plazan atera zen, eta makina bat auzokide agertzen da argazkian:

- 1- Jose Luis Uribarren
- 2- Felipe Berezibar
- 3- Martin Uribarren
- 4- Jose Luis Azkoaga
- 5- Jose Mari Barandiaran
- 6- Nati Iria
- 7- Maribi Orobengoa
- 8- Pilar Zubizarreta
- 9- Luis Mari Uribetxeberria "Eperra"

- 10- Jesus Mari Herrarte
- 11- Milagros Azkoaga
- 12- Purita Otxoa
- 13- Rosita Uribarren
- 14- Juan Jose Zuazubiskar
- 15- Juan Mari Uribarren
- 16 eta 17 ezezagunak dira
- 18- Rafael Zuazubiskar
- 19- Carmelo Herrarte
- 20- Pilar Uribarren

- 21- Arantxa Zumalde
- 22- Espe Mendarozketa
- 23- Juanita Abarrategi
- 24- Antxon Zumalde

Argazkia:

Rosita Uribarren

Berriemaileak:

Leze-Txiki elkartea eta

Rosita Uribarren



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Lore

LURRINDEGIA

Olarte.10 • ARRASATE • ☎ 943 79 52 50

MARITXU KAJOI

eskaintza berezia

MAKILAJEA eta SOLARIUMA

(etzana eta zutikakoa)

MASAJEA

masaje terapeutikoa
kirol masajea
osteopatia
kinesiologia



KABINA

gorputz tratamendua
aurpegi tratamendua
drenaje linfatikoa
depilazio elektrikoa
depilazioa laser bitartez

KORA O'NEAL

Ayer

HR
TRUJANO RIVINGTON

CLARINS
PARIS

BIOTHERM

VALMONT

Multiofertas



Heldu dira Multieskaintzak.
Familia osoarentzat.

Bonardi bilduma



Haurrentzako betaurrekoak



60 urtetik gorakoentzako
betaurrekoak



Lente progresiboak

19.500 pta.tik aurrera
117,20 €

EDOZEN Distantziara Ondo Ikusateko



www.multiopticas.com

Eskaintza honek 2000/10/31ra arte balio du. *Eskaintza honek lente zurientzat balio du +/- 2ko ZIL.

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Ibargarai, 16 - Tel. 943761575 - BERGARA
J. Carlos Guerra, 1 - Tel. 943792995 - ARRASATE
J. M. Barandiaran Enp - Tel. 943889988 - ORDIZIA

R.P.S. N° 164/99

Laster...



...harrituko zaitu.



MUGARRI

Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE
Tel.: 943 79 07 54 • jefeventas@mugarri.es

